

ttiipi-ttapa

279. zenbakia • 2000ko ekainak 1 • XX. urtea



Apelliduetan euskaratzea aski erraza da orain

Aski erraza, beti ere, Nafarroan eta EAEn bizi diren euskaldunentzat, zeren, iparraldeko euskaldunei frantzes administrazioak ez baitie eskubide hori gauzatzeko inolako biderik ematen. Gauzak horrela, eskubide hori baliatzen ahal dutenek orain Herriko Etxean bertan egiten ahal dute tramitazioa ixtant batean. Lehen, paper aunitz bete behar izaten zen. Iruñera joan Familia Liburwarekin, epailearen aitzinean agertzeko lekuak bilatu, joan, etorri...

Hitz gutitan errateko, gogo eta denbora ausarki tramitazio osoa burutzeko. Orain, ordea, tramitazio guzti hori izugarri sinpletu da joan den urte hondarrean Espainiako Diputatuen Kongresuak Lege berria onartu zuenetik. Lege horren xedea, jakina, ez da bakarrik izen deiturak Espainian ofizialak diren hizkuntzetan idatzi ahal izatea.

Iparraldean, frantzes administrazioak ez du aukera hori ematen baina Nafarroako eta EAeko Herriko Etxetan momentu batean egiten ahal da tramitazio guzia

Eskubide gehiago ere onartzen ditu: amaren deitura aitarenaren aitzinetik paratzea, bietako batena kentzea...

4-5



Presoen aldeko ibilaldia Larrunerat

Azkaine, Sara eta Beratik abiatuz

Igande honetan, ekainak 4, Presoen aldeko ibilaldia antolatu dute. Hitzordua goizeko 9etan deitua da herri bakoitzeko plaza eta eguerdi inguruan bazkari alaitua egingen da kaskoan.

3 Ekarrizketa: Josebe Aldabe, Doneztebeko taxilaria

Hemen inguruan taxia gidatzen duen emakume bakarretakoa da urroztarra. Berak dioenez, «*taxian jende aunitz ibili behar duzu, klase guzietakoa eta horren gibelean egoten ahal da arriskuari beldur hori. Baina arriskua berdina da gizaseme nahiz emakumeendako*». Ofizio horrek dituen alde on eta txarrak atera ditu mahai gainera Josebek.

25 Kultur: Ertzetako musikaren jaialdia Beran

Ekainaren 9 eta 10ean atzerriko eta hemengo hainbat taldek joko du Berako kultur etxean. Musikari ezagunak ez badira ere, proposamen harrigarriak dakartzate.

TTIPI TXARTELA: Orain txartela izateak abuntaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.



ARGAZKI DENDAK



DONEZTEBIE • ELIZONDO
Tfnak.: 948 58 04 91
948 45 03 64

- ▶ %10 merkeago errebelatu eta artikuluetan

ARROPAK

IPINGI

ARROPAK
OSAGARRIAK
ESKULANAK

Santiago, 88 ELIZONDO
Tfnak.: 948 58 09 39

- ▶ %10 merkeago 5.000 Ptatik goiti



edurne
UMEENDAKO ARROPA

Aitzana, 34 • BERA
Tfnak.: 948 63 06 06

- ▶ %10 merkeago 5.000 Ptatik goitiko erosketetan

KAPALDUKARI

ARROPA GENDA

Santiago • ELIZONDO
Tfnak.: 948 58 06 93

- ▶ %10 merkeago artikuluetan

ALBERTO
ARROPADENDA

Hondarribia, 6 IRUN
Tfnak.: 943 61 58 15

- ▶ %10 merkeago



TTIPI TXARTELArekin beti irabazten da

Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gehiago irabaziko duzu.

Deskontuak, zozketak, opariak...

ESKATU ZUREA

948 63 11 88



LURRINDEGIA ESTETIKA ZENTRUA

Zure larruazala behar bezala zaintzeko ez zaitez eguzki babesik gabe gelditu. Amala lurrindegia eta estetika zentruan eguzkitik babesteko produkturik onenak aurkituko dituzu.

Bortz solarium saio TTIPI TXARTELA dutenendako



5 solarium saiko saria

zozketatuko da TTIPI TXARTELA dutenen artean.

Zozketan parte hartzeko, deitu ekainaren 8a baino lehen 948 63 11 88ra.

MEKANIKA

SEAT DATUUELA

SEAT ZERBITZU OFIZIAL
Bastan-Bortzirak-Masera

Santiago, 88 ELIZONDO
Tfnak.: 948 58 02 25

- ▶ %10 merkeago berririk eta amortiguadoreak aldatzea

ZALAIN MOTOR

KONPONKETA ETA
SALMENTA

Libela Industrialak • BERA
Tfnak.: 948 63 11 37
608 77 90 23

- ▶ %5 merkeago errekambioetan

TINDATEGIAK



TINTORERIA JAIONE

Elizapedia, 7
DONEZTEBIE
Tfnak.: 948 45 06 31

- ▶ %10eko deskontuak 2.000 pezetatik goiti

ZAPATADENAK



Legia, 16 • BERA
Tfnak.: 948 63 15 16

- ▶ %10eko deskontuak

DATUAK.....

❖ Urrotzen sortua, Garazeneko Bordan, lau urte daramazki taxi gidari lana betetzen Donezteben.

❖ Madrilera eta Frantzia aldera izan dira egin dituen bidairik luzeena eta honelakoetan arras luzea egiten zaio itzulera. «Bidai guziek badute bere xarma, baina etxera bueltatzeko gogo haundia izaten dut».

❖ Taxia hartzen dutenen artean harrigarrienak «pasiatzera ateratzeko erabiltzen dutenak dira» Joseberen ustez. «Eurek ez dute pasiatzera doazela erraten, baina harat eta honat ibiltzen dira, deus egitekorik gabe».

TESTUA:
AITOR AROTZENA
ARGAZKIA:
FELIX MENA

✍ Josebe ALDABE *Doneztebeko taxi gidaria*

“Edaten dutenek taxia hartzeko joera gero eta handiagoa dute”

IRAKASLE, DENDARI, TB AURKEZLE ETA BERTZE LANAK EGIN DITUZU. NOLA GOGORATU ZITZAIZUN TAXIAREKIN HASTEA?

Zuk aipatutako lan guzi horiek bertzeen kontura egiten nituen. Taxia hartzeko aukera sortu zenean, autonomia izatearena baloratu nuen eta gidatzea gustokoa nuen, hor sartu nintzen. Plaza hartzea erabaki nuenean taxi gidari karneta ere atera behar izan nuen.

INGURUAN EMAKUME TAXISTA GUTTI ZAUDETE. ZERGATIK?

Autonomo izatea, ohituragatik, gizasemen kontua bezala hartu da hemen beti. Bertetik, taxian jende aunitz ibili behar duzu, klase guzietakoa eta horren gibelean egoten ahal da arriskuari beldur hori. Baina arriskua berdina da gizaseme nahiz emakumeendako.

ARRISKUAZ SOLAS EGINEZ, IZAN DUZU HORRERILAKO EGOERARIK?

Neri zuzenean ez zait alerikan ere gertatu. Ikaria pasatu bai, baina igual egoeragatik baino gehiago nere irudime-nak eragindakoa izan da. Horrerik buelta ematen zaio. Ofizio guzietan badira arriskuak.

ETA EMAKUME IZATEAGATIK ARAZORIK IZAN DUZU BERTZE TAXISTE-

❖ “Emakume gutti gaude ofizio honetan. Arriskuaren beldurragatik izaten ahal da, baina arriskua berdina da emakume nahiz gizasemeendako.”



«Ofizioan dagoen kompetentzia desleiala da gehien erretzem nauena.»

KIN EDO BEZEROEKIN?

Ez, ez, sekulan ere ez. Bai lankideei baita bezeroei ere haseran harridura sortzen die. Baina gero ongi hartzen dute, batzuk kontent jarri eta guzi. Bezeroa emakumea denean arras ongi iruditzen zaie eta gizasemeek ere ongi hartzen dute. Lankide-etatik noizbait komentario sexistaren bat adi-

tu behar izan dut, baina ez normalean gizartearen aditzen dena baino gehiago.

MUNDU GUZIAK BERE AUTOA DUEN GARAI HONETAN, ZERTARAKO ERABILTZEN DA TAXIA?

Malerrekan Doneztebe da zentroa eta gehienetan herrietatik Doneztebera joateko erabiltzen dute, gidatzeko karnetik ez duen adineko jendeak batez ere. Gero, Malerrekatik Iruñera edo Donostia aldera ere jende aunitz mugitzen da, osasun arloko gauzetarako, errehabilitazioak...

JENDE GAZTEAGOAK, BESTA EGITEN DUENEAN ETA, BADU TAXIA HARTZEKO OHITURARIK?

Orain artio, egoera txarrean zeudenean ere autoa hartzeko joera zuten, batez ere gazte jendea bere autoarekin ibiltzeko ilusio haundia izaten duelako. Azken aldian taxia hartzeko ohitura haundiagoa dago, alkoholemia kontrolen edo istripuen beldur direlako.

OFIZIOAREN ALDERIK TXARRENA?

Kompetentzia desleiala da erretzen nauena, furtibo aunitz dabil.

APELLIDUAK ABIZENDU

Izen-abizenak euskaraz idazteko eskubidea

Irazoqui, Ancizar, Tellechea, Ochoteco, Anchordoqui, Echeverria, Francisco Javier... Berriki arte horrela idatziak agertu dira gure izen-abizenak agiri ofizial guzietan. Horiek aldatzeko harat-honat aunitz egin behar ziren berriki arte eta gutti ziren pausu guziak ematera ausartzen zirenak. Orain, ordea, ez dago aitzakirik. Joan den urteko azaroaren 5ean, Espainiako Kongresuan onartutako Legea, aurtengo otsailaren 11ko Erret Dekretu baten bidez berretsi da. Izen-abizenak euskal grafiaz jartzeko norbere herriko edo eskualdeko bake epaitegietara joatea aski izanen da.

TESTUA: AITOR AROTZENA
ARGAZKIA: KARMELE TOLOSA

Lege berriak, izen eta abizenak norbere hizkuntzaren arabera idazteko eskubidea onartu eta aukera ematen du. Horretaz gain, abizenen ordena aldatzeko modua ere eskaintzen du, hau da, amarena aitarenaren aitzinetik paratu, bietako batenak kendu...

Abizenak aldatzeko tramitazioa, bakoitza bizi den herriko edo eskualdeko bake epaitegietan hasi behar da, kasu guzietan. Bi kasu

gertatzen ahal dira. Interesatua bizi den lekuan bertan sortua bada, tramitea aski errega izanen da. Dagokion bake epaitegira joan eta paperak bertan bete beharko ditu. Idazkariak eta bake epaileak sinatu beharko dute. Bere abizena Euskaltzaindiaren liburuan agertzen bada ez dago arazorik euskaratzeko. Hori bai, Bortziritako Bake Epaitegian ari den Javier Urangak adierazi digunez, komeni da aitzinetik liburu hori ongi begiratzea, batzuetan aldaketa kozkorra izaten baita ohituak gauden grafiatik euskarazkora (Ira-



Izenak eta abizenak euskaraz jartzeko norbere bake epaitegira joan bertzerik ez da egin behar. Argazkian Bortziritako Bake Epaitegiko langileak, Berako bulegoan



Izen-abizenak euskaraz jartzeko prozesua aunitz erraztu da. Orain, jendea animatzea bakarrik falta da...

Lehen paper aunitz egin behar ziren, Iruñera joan be-

«Orain ez dago aitzakirik abizenak euskaraz idatziak ez izateko»

har zen famili liburuarekin, jaiotza agiriarekin, lekukoak behar ziren, joan, etorri... Korapilatsu xamarra zen. Orain momentu batean bake epaitegira joan eta epaileak eta idazkariak sinatzen duten bezain laster, agiri hori erabiltzen ahal da bertze dokumentuetan abizena aldatzeko. Beraz, ez dago aitzakiarik izen-abizenak euskaraz idatziak ez izateko.

Zure ustez jendeak izenak modu egokian idatzia ikusteko premia du edo orain arteko moduan ikustera ohituegia dago?

Denetik izanen da. Batzuk kontzientziatuak egonen dira, euskaldunak direnez euskal grafian idatziak ikusi nahiko dituzte. Bertzeek, betidanik erdal grafiaz ikustera ohituak egonen dira eta ez dute inolako beharrik somatuko.

Dena den, orain aukera ederra dago modu errexean zure abizena ongi ikusteko paper guzietan.

Beraz, izen-abizenak euskaratzera animatuko zenuke jendea, ez da?

Bai, dudarik gabe. Hain errexa izanik! Gainera, hori betirako gelditzen da eta zure oinordekoek, seme-alabek, ilobek... betirako izanen dute, hortik aurrera.

tzoki, Antsizar, Muxika adibidez). «Euskaltzaindiak honela agertzen badu, honela idatzi behar da, epaitegian ezin da tarteko bat idatzi – Irazoki, Anzizar edo Mujika adibidez– eta batzuei aldaketa handiegia iruditzen zaie». Gerta daiteke, ordea, abizena Euskaltzaindiaren liburuan ez agertzea. Orduan, erakunde honi ziurtagiria eskatu beharko zaio, abizen hori euskalduna dela froga dezan. Gero, bake epaitegiko langileak abizenaren aldaketa eginen du interesatuaren jaiotze inskripzioaren bazterrean eta hori egin ondotik, interesatuari jaiotze agiri literala emanen diote (abizenean egindako aldaketa bertan idatzia dela). Dokumentu hori izanen da interesatuak erabiliko duena bertzelako dokumentuetan (Nortasun Agiria, pasaporteak...) abizena aldatzeko.

Interesatua bizi den herri berean ez bada sortu, eta beraz, bere jaiotze agiria berzte herriren baten duenean, urrats beretsuak eman behar ditu: bizi den herriko epaitegira joan aldaketaren berri emanez eta hortik harremanetan jarriko dira sorterriko bake epaitegiarekin, egindako aldaketaren berri emanez. Hango arduradunari eskatuko dio aldaketa jaiotze inskripzioaren orrian egin ondotik, jaiotze agiri literala interesatua bizi den herri edo eskualdeko bake epaitegira bidali dezala.

Euskaldunak ez diren abi-

zenak euskaraz idatzeko ohitura dute batzuk (Bakero, Kañamares...) baina horiek ezin izanen dituzte ofizialki kontuan hartu epaitegietan. Garcia abizena, ordea, euskalduntzat jo du Euskaltzaindiak eta Gartzia idatzi behar da.

Izena ere euskaraz

Abizenak ez ezik, izena ere euskaraz jartzeko aukera ematen du lege berriak. Horretarako, bakoitzari dagokion bake epaitegira joan behar da. Iciar, Jose edo Juan izenak euskaratzeko ez da arazorik sortzen eta Itziar, Joseba edo Jon bezala erregistroan apuntatzeko ez dute arazorik jarriko.

Bertzelako kasuak, ordea, izen aldaketatzat jotzen dituzte eta horretarako Iruñeko bake epaitegira joan behar da, orain arte egin behar zen tramitazio luze berbera egin behar da (lekukoak, Nortasun Agiria, Familia Liburua, hiru dokumentuak...). Adibidez, norbaiten agirietan Francisco Javier izenarekin ageri bada eta Xabier jarri nahi balu, Iruñeko epaitegira joan beharko luke. Izan ere, itzulpen zehatza Patxi Xabier izanen litzateke. Kasu horretan, bere epaitegian egiteko modua izanen luke.

Arestian aipatu bezala, abizenen ordena aldatzeko aukera ere ematen du lege berriak, 18 urtetik goitikoan ka-

suan. Jaio berrien abizenak zein ordenetan jarri ere gura-soen esku egonen da.

Beraz, tramitazioa egiteko arazorik ez dago eta gero, behin izena edo abizena aldatuta ere ez da inolako arazo legalik sortzen.

Iparraldean ez dago izen-abizenak euskaraz idatzeko modurik

Orain arte aipatu duguna Espainiako Kongresuak onartutako legearen ondorio da. Halere, euskaldun guziek ezin izanen dute beraien izen eta abizenak euskaraz txukun idatziak ikusi, Frantzian oraindik ez baitute honelako legerik onartu. ■



ADIBIDE BATZUK

IRAZOQUI	➔	IRATZOKI
ANCIZAR	➔	ANTSIZAR
ÖCHOTECO	➔	OTXOTECO
ANCHORDOQUI	➔	ANTXORDOKI
ECHEVERRIA	➔	ETXEERRIA
CIARRIZ	➔	ZIAURRITZ
DAGERRE	➔	AGERRE
DAINCIART	➔	AINTZIARTE
MACCIOR	➔	MATZIZIOR
HUICI	➔	UITZI / HUITZI
GOYENECHÉ	➔	GOIENETXE
OSCOZ	➔	OSKOTZ
OSCARIZ	➔	OSKARITZ
ONSALO	➔	ONTSALO
MUJKA / MUGICA	➔	MUXIKA
GARCIA	➔	GARTZIA

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>

e-mail:

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

Presidente: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Berriemaileak: Joseba Azpiroz,

Esteban Arozena,

Juana Mari Saizar,

Iban Isasi,

Patxi Iriarte,

Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena,

Alba Fernandez,

Lorena Galarregi,

Pablo Mendiburu,

Franck Dolosor,

Margari Etxenike,

Koro Irazoki,

Ana Mari Etxeberri,

Frederick Berruet,

Elixabet Iturria,

Garbiñe Maiz,

Oskar Txopereña,

Pello Apezetxea,

Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa,

Mikel Bezunartea,

Belarra...

Inprimategia: Gertu.

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi eta Sarako udalak,

Bortzirietako Euskara

Mankomunitatea, Malerrekako

Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria2.200 Pta.

Ipar Euskal Herria160 Libera

Europa4.000 Pta.

Amerika16.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Abizenak herrian bertan euskaratzen ahal dira orain

Bortz hilabete espetu behar izan nuen nire izen-abizenak ongi idatziak ikusteko



Oihana SENPER
Bera

Izen abizenen aldatetaren zergatia argi dagoela uste dut, ortografia

akatsa.

Hasiera batean Berako bake epaitegira joan nintzen informazio bila. Han karnetaren fotokopia, bi lekuko... Iruñeako epaitegira bi lekuko eraman behar nituela erran zidaten. Horrek harritu ninduen gehien. Nik ez al dakit nere izen-abizenak ongi idazten? Bortz hilabete espetu behar izan du dut nere izen-abizenak ongi idatziak ikusteko. Hala ere oraindik ez dago dena egina, karneta berria egin behar izan du, kotxeko karneta berri, eskola-tituluak aldatu...

Orain hagitzez erraxagoa da; zure herriko bake epaitegira joanez eta nahi dituzun aldatetako eskatuz bi-hiru egunetan egin daukazu.

Herriko bake-epaitegietan egitearen arrazoia beharbada jendeak akats ortografikorik gabe idazteari garrantzi handiagoa ematen diolako izan daiteke.

Ama eta aitaren abizenak ordenez aldatzeko pausak berdintsuak izango direla pentsatzen dut, hala ere amaren abizena aitzinean joatea zentzuzkoagoa dela uste dut.

Jendeak badu interesa izen-abizenak euskarara itzultzeko



Lurdes AZURMENDI
Leitza bako-epaitegia

Gu Leitza eta Doneztebeko bake-epaitegietan egotengara. Lehendik

ere izen-abizen aldatetako egiteko espedienteak hasten genituen, abizenen grafia aldatzeko batez ere. Baina otsailetik honat bake-epaitegietan bertan egiten dugu dena, azkarragoa eta erraxagoa da.

Nik ikusten dut jendeak baduela interesa izen-abizenak euskarara itzultzeko. Azken urteetan izena eman dutenei izena ongi idatzirik agertzen zaie, baina badago beste belaunaldi bat interes handia duena grafia zuzentzeko.

Hori izenekin gertatzen da, zeren abizenek gurasoen grafia hartzen baitute normalean. Abizena aldatzeko Euskaltzaindiaren nomenklatura liburu batean agertu behar du, eta hor jartzen du nola idatzi behar den zuzen.

Prozesua erraxa da, bake-epaileak berak hartzen du erabakia, eta horren ondotik jaiotze aktan aldatetako egiten dira behin betirako.

Abizenaren grafia tradizio familiar bat bezala ikusten dute batzuk



Koro IRATZOKI
Zugarramurdi

Duela 10 bat urte erabaki nuen abizenen grafia zuzentzea, batez ere

orduan nere lehenbiziko umea izan behar nuelako. Nik, nere lanetik, badakit zer den abizen ofiziala eta zuk usaian idazten duzuna desberdinak izatea. Horrek nahasketa batzuk sortzen ditu, eta hori ebitatzeko aldatu nuen. Nere kasuan Irazoki "Irazoqui" idatzia zegoen, eta aldatzea egin ahal izateko Euskaltzaindiaren agiri bat behar nuen, erranez nola idazten zen. Nik gutun bat bidali nien eta euren erantzun zidaten Irazoki idazten dela.

Nik ez dut uste jendeak gai honerik garrantzirik batere ematen dionik. Igual jende gazteak bai, gehienbat euskarazko eremuan eskolatzen direlako eta beren abizena euskaraz idazten dutelako tikitatik. Orduan mentalizatuago izaten dira, baina nere adinetik goitiko jendea... nik badut izeba bat oraindik "Irazoqui" idazten duena, eta pena ematen dio bere familian beti horrela idatzi dutelako, eta lotura bat haustea bezala iduritzen zaio. Hor arrazoi emozional batzuk ere bada ez aldatzeko. Beraz, grafia tradizio familiar bat bezala ikusten dute batzuk.



ttipi-ttapa
fundazioak
Europako
Batzordearen
dirulaguntza
jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkenera 9-13etara eta 15-19etara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

IRAKURLEAK MINTZO

**Zorionak
Lotsagabe!**

Opariek ilusio handiagoa egiten dute espero ez dituzenean eta horrelako zerbait gertatu zait ttipi-ttaparekin batera Lotsagabe aldizkaria jaso dudanean. Aldizkari ttipi bezain txukuna eta interesgarria. Itxura aldetik ederra, kolorez apaindua eta ongi antolatua. Edukien aldetik, aukera aunitz eskaintzen dituena (elkarrizketa, musikarirola, sexu heziketa, informatika, bidaiak...), euskara hutsean. Gazteek gazteendako egindako aldizkari polita. Akaso, zenbait sailletako artikulua arin xamarak iruditu zaizkit, baina aurkezpen aldizkaria zelako izan daiteke. Ideia hau aitzinera eramane dutenei nere animorik beroenak eskaini nahiko nizkieke. Pena da bakarrik Bortzirietan banatzea, honelako aldizkari bat inguru guzian hedatzea aski interesgarria izanen bailitzake. Eta hiru hilabetetik behin izan beharrean hila-betero argitaratzea? Badakit

sosa kontuak zailak izanen direla eta hortan zabilzatenak bertze hainbat kontu izanen dituzuela egiteko, baina honelako aldizkariak mereziko luke hilabetekaria izatea. Animo!

G.L.B.

**Leitzeko alkateari:**

Leitzeko ama batzuek, ez dugu ulertzen, hemen hainbeste ume izanda, nolatan ez duen udaletxeak fundametozko parke bat egiten. Lotsagarria dago orainoa: lurre harriz beteta, kolunpio zaharrak, iturria urarik gabe... Umeek ez dute leku polit bat jolasteko. Plazara jo-

aten bagara, batzuetan ume koxkorak pelotan jolasten ari dira, gainera, adi egon behar duzu umeak non dabilten ikusteko, kotxeak hurbil ibiltzen dira eta. Parkera joaten bagara, oinez ikasten ari diren umeak ezin dituzu bakarrik utzi, zeren eta lur horretan erortzen badira... Desberdina izanen litzateke,

lur berdea bageneukan. Ez dakigu kasu egingo dezun, baina orain jakinangain zaudede, herria politagoa jarri nahi baduzu, beharra du eta.

LEITZEKO AMA TALDE BAT



VIII. GASNA ETA ARTISAU FERIA
EKAINAREN 4an ETXALARREN

ETXALARKO UDALA

ETXALARKO KULTUR ELKARTEA

Altxata
ETXALARKO KULTUR ELKARTEA

OHARRA:

*Iritzi ezberdinek toki izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapak** bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*



Diario Vasco 00ko maiatzak 26

«Oianean lanean ari nintzala jokatu nuen leenengo apustua. Amasei urte nituelarik, gazte maillako norgeiagokan txapeldun gelditzeko suertea izan nuen».

Patxi ASTIBIA
Leitzako pilotari ohia
Diario Vasco
00-05-26

«Pilotari gazteak oso berde ikusten ditut. Nik pentsatzen nuen eskuz banakakoan Olaizola II edo Goñi II bezalako pilotari batzuk gauzak

erakusten hasiko zirela, baina ez dute kasik deus ere ez erakutsi».

Julian RETEGI
Eratsungo pilotaria
Diario de Navarra
00-05-22

«Politena entzuleekin mintzatzea izaten da eta ni naizen bezala agertu mikro aurrean: berritsu. Eta zer bait gaizki ateratzen bada, esan egiten dut, zurikeriatan ibili gabe».

Unai Zabaleta
Karrape Irratiko esataria
Argia / 00-05-21

- ◆ **Haur Hezkuntzan Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasle onenaren saria jaso duzu. «Empollona» bat zarela erran nahi du horrek?**
 - ❖ Ez, ez dut uste empollona naizenik. Gainera, ez zait ikastea sobera gustatzen.
- ◆ **Asteburuko plana: ikasi, poteatzera ateri edo zinera gan?**
 - ❖ Poteatzera ateri, asteburuak sakratuak dira niretzat eta ez ditut liburuak ukitzen.
- ◆ **Ikusi duzu azken pelikula?**
 - ❖ «Todo sobre mi madre», baina orai guti gaten naiz zinera.
- ◆ **Haur ttikiekin egiten duzu lan. Zer da gehien gustatzen zaizuna?**
 - ❖ Eurek ematen duten maitasuna eta esker onekoak izaten dira.
- ◆ **Eta guttien?**
 - ❖ Batzutan akitzen dute zure pazientziarekin.
- ◆ **Negarrez hasten direnerako errezeta majikorik?**
 - ❖ Musu bat eman.
- ◆ **Bizitzeko, Irurita edo Iruña?**
 - ❖ Irurita, dudarik gabe.
- ◆ **Patosos izeneko hartzaindegian ari zara. Egitan patosoak dira haurrak?**
 - ❖ Bai haurrak eta bai ni.
- ◆ **Zure haurretako oroitzapenik onena?**
 - ❖ Kanpoan jostetan aritzea eta eta amatxirekin paseatzea.
- ◆ **Haurrendako ipuinik gustokoena?**
 - ❖ Klasikoak gustatzen zaizkit, Txanogorritxo, Hiru txerri txoak... Onenak dira.
- ◆ **Berteen haurrak ez ezik, zureak ere zaintzea gustatuko litzaizuke noizbait?**
 - ❖ Bai, noski... arras gustoko ditut haurrak.




Sonia NAVASCUES
Hartzaindegiko langilea
IRURITA

ROMANO PINTURAK

Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa eta sintasola.

© 948 63 11 37 / 649 84 01 49 • BERA



JESUS M^a YANCI

► ITURGINTZA
► KALEFAKZIOA
► BAINUEN ERREFORMA
Tel. 948 631484 • BERA



AUTOESKOLA

Legia 36ra • BERA

- Gidatzeko karneten tramitazioa
- Irakaskuntza pertsonalizatua
- % 95ak gaintzen du teorika

Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA
ZELAIA Harategia
Agerra Auzoan

Turistei bereziki zuzendutako ekitaldiak diruz lagunduko ditu Partzuergoak

Elkarteek ekainaren 23a arteko epea izanen dute beraien eskaerak egiteko

TTIPI-TTAPA

Bertizko Turismo Partzuergoak 300.000 pezetako dirulaguntza banatuko du aurten turistentzat interes berezia duten kirol, kultur edo bertzelako ekitaldiak antolatzen dituzten zonaldeko elkarten artean. Partzuergoaren helburu nagusia Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko promozioa da. Horretarako sistema ezberdinak erabiltzen dira: argitalpenak, ferietara joatea, publizitatea, kultur aktibitateen antolakuntza edo bertze erakunde batzuk antolatzen dituzten ekitaldietan laguntza.

Izan ere, Partzuergoaren ustez, turismoa bultzatzeko behar beharrezkoa da ekitaldi hauek bultzatzea. Eskaera aunitz ailegatu zaizkion arren, «*posibile ziren guztiak laguntzen saiatu gara. Baina orain arteko sistema ez da guztiz egokia eta horregatik 2000. urterako laguntza hauek emate-*

ko bertze modubak erabiliko da».

Elkarteek ekainaren 23ko eguerdiko 2ak baino lehen aurkeztu beharko dituzte eskaerak (*Bertizko Turismo Zentroa; 31720 Oieregi*).

Antolatzailea, lan tal-

dea, aktibitatearen deskribapena, aurrekontua eta bertze datu batzuk agertuko dira eskaeran.

Partzuergoko Administrazio Kontseiluak proposamen guztiak aztertuko ditu eta interes turistikoaren arabera

sailkatuko ditu. Emanen diren laguntzak gehienez aurrekontuaren %20koa izanen da.

Dirulaguntza jasotzeko, aktibitatearen promozioan Bertizko Partzuergoko logotipoa agertu beharko du edo

erran beharko da aktibitatea burutzeko laguntza jaso duela. Modu berean, egindako gastuak abenduaren 1a baino lehen aurkeztu beharko dira Bertizko Partzuergoan, laguntza jaso ahal izateko.

NEKAZARITZA-ABELZAINITZA



San Isidro eguna Igantzi eta Arantzan

Azken urteotako ohiturari jarraituz Arantza eta Igantziko koadrilla polita bildu zen -aurtengoan Igantzin- San Isidro eguna ospatzera. Meza entzun ondotik, La Villa jatetxean izan zuten bazkaria, bertsolariek -Jose txo Yanci eta Salbador Madariagak- eta Joaquin Madariaga akordeolariak girotuta. Azken honek txiste kontalari trebea dela ere erakutsi omen zuen.

Argazkia: Oskar Txoperena

PIKABEA

Molinero drogerian galdetu

pinturak

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

lzpaz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA

ttipi-ttapa
internet

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>
E-mail: ttipi-ttapa@topagunea.com

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 • © 948630083 BERA

SAROBE
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

ZURGINDEGIA
ZERRAILGINTZA



Jose Luis
PAGOLA
ETXEBESTE

© 636 172895 • BERA

Ekainaren 9 eta 10ean egingen da musika berritzaileen jaialdia

Kontzertuak, proiektzioak eta material salmenta izanen dira aukeran

ASIER GOGORTZA

Ortziral honetan II Gran Teatro Amaro taldeak Pui ostatuan egingen duen saioa izanen da Ertz jaialdiaren apertifa. Berako musika taldeek Berako Kultur Batzordearen laguntzarekin antolatuta duten jaialdi honetan Katalunia, Estatu Batuak, Britainia Handia eta Euskal Herriko musika taldeek hartuko dute parte. Elektronika eta elektroakustikaren eremuan mugitzen dira talde gehienak, baina bertze gisako proposamenak ere izanen dira aukeran. Bakarren bat aipatzekoan, Francisco Lopez madrildarraren emanaldia azpimarra genezake. Musikari honek hainbat oihanetan grabatutako soinuak bildu ditu, eta ambienteak sortzen munduko maixu handienetakoa da. Bere saioa harrigarrietakoa izanen da dudarik gabe, publikoari begiak estaliraziko baitizkio 6 norabide desberdinetatik etorriko den musika hobeki irensteko.

Horrekin batera, aipamena merezi du Xabi Erkizia musikariak eta Jorge Llorella argazkilaria elkarlanean osatu duten proiektua. Bideo proiektio baten bi-



Berako XXVII. Pilota Txapelketako finalistak

Berandu xamar baldin bada ere, hona hemen apiril hondarrean jokatu zen txapelketako irabazleen irudia. Benjaminetan Jon Irazoki eta Andoni Martinez gailendu ziren Mikel Goienetxe eta Unai Rodriguezen aitzinean. Alebinetan Gaizka Martikorena eta Mikel Del Rio, Iñigo Blas eta Ibai Iturriaren kontra aritu ziren, eta azken hauek irabazi zuten partidua borrokatu baten ondotik. Azken emaitza, 18 eta 17. Azkenik, gaztetxo edo infantil mailan Eneko Agirre eta Joseba Larralde 18-13 irabazi zieten Iñaki Eskudero eta Jon de la Cruzeri.

Gazteek txapelketa ez bainan erakustaldi partidua jokatu zuten. Gorka Irazoki eta Gorka Retegik, Aitor Zerezo eta Asier Iruruetaren kontra jokatu eta irabazi zieten 22 eta 11.

dez Beran ateritako argazkiak erakutsiko dituzte, zuzeneko musikaz lagundurik. Joan den asteazkenean bertan aurkeztu zuten proiektua Donostiako Koldo Mitxelena aretoan. Bideoaz gain herriko paisajeak biltzen dituen argazki-katalogoa ere egunotan jarriko dute salgai.



Berako plazako kioskoa moldatzen ari dira

Teilatua eta aitzinean zituena pinuak kendu ondotik, burnizko baranda bat jarriko diote probisional moduan. Luzera, ordea, plazaren planifikazioa egin eta kiosko osoa botako ote duten aipatu dute Udaletik.

flash

Mugaz gain

Eskolarteko antzerki jardunaldi hauek egun hauetan burutu dira Kultur Etxean. Aurten, berrikuntza gisa, antzezlan batzuk publiko guziri eskainiko dizkio te ekainaren 16an. Berako haur eta gazteek antzerkian egin duten lana ikusgai egonen da beraz.

Terra erakusketa

Argazki erakusketa hau zabalik da Kultur Etxean maiatzaren 22tik. Brasilgo lurrik gabeko nekazarien mugimenduko kideak dira Ipes eta Sodepaz elkarten ekimenez antolatuta den erakusketako protagonista. Ekainaren 8a arte bisitatzen ahal da, 18etatik 20etara.

Liburutegiko lanpostua

Ekainaren 8a arte izanen du astia liburutegian lanposturako izena eman nahi duenak. Nahitanahiezkoa izanen da EGA titulua edukitzea.

belardenda
Mediku naturista kontsulta
Legia I, behea • BERA
© 948 630652

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak
E E K L E
st tu
Tfnoa: 948630259 - BERA

© 948 631462
Altzate I • BERA
Xirail

LESKA

Itoizko Solidarioen aldeko kontzertu haundia larunbat honetan

Barricada, SA eta Doctor Deseo taldeak izanen dira gaueko izarrak

AITOR AROTZENA

Larunbat honetan, ekainak 3, Itoizko Solidarioei elkartasuna adierazteko kontzertua antolatu dute Baztan, Bortzirriak eta Malerreka gazteek. Arratseko 10etan hasiko den emaldian, Barricada, SA eta Doctor Deseo bezalako talde handiak aditu eta ikusteko aukera izanen da. Horretaz gain, txalapartaren doinuak eta DJen lana aditu ahal izanen dira. Sarrerako prezioa 1.000 pezetakoa izanen da.

Aire kutsadura neurtzeko tresnarik ez momentuz

Aire kutsadura neurtzeko tresna bat jartzea eskatu zuen EH taldeak martxoaren 24ko batzarrean. Oraindik ez denez egin, aparatu hori paratzeko intentziorik dagoen edo ez galdetu zuten azken batzarrean. Alkateak, kutsadura mota guziki neurtzeko interesa dutela erran ondotik, bertze galdera batekin erantzun zuen: «Udaletxeak



Ikastolaren 25 urteei buruzko argazki erakusketa

Tanturumairu ikastolak 25 urte bete dituela eta, argazki, eskulan eta bertze materialen erakusketa antolatu da ikastolako gimnasioan, ekainaren 10etik 18ra. Erakusketa, astelehenetik larunbatera, arratsaldeko 6etatik 9etara zabalik egonen da eta igande goizetan 11etatik 1etara. Hontaz gain, CD bat karrikaratuko da egun horietan. CD horretan, argazki bilduma baten bitartez, mende laurden hori laburbiltzen da. Ikastolatik aipatu dutenez, «haurtzaroaren oroitzapenak berrituz edota seme-alaben ttikitako irudiak berreskuratuz une goxoak igarotzeko aproposa da».

erosi eta paratzeko eskatzen da edo Nafarroako arduradunek jarri behar dute?».

Musika eskolako matrikula

Udal Musika esko-

lan 2000-2001 ikasturterako matrikula egiteko epea ekainaren 8tik 16ra izanen da. Horretarako, Herriko Etxeko bulegoetara joan behar da, goizeko 8etatik 11etara. 1995ean jaio

diren haurrak ere hasten ahal dira urritik aitzinera.

Modu berean, helduen tailerrean parte hartu nahi dutenentzat ere matrikula epea zabalik dago.

Personaiak

Zortzi urte Beti Gazteko futbol talde nagusia zuzentzen

Hemeretzi urte bertzerik ez zituela hartu zuen Beti Gazteko talde nagusia zuzentzeko ardura Koldo Erkizia. Ordura arte jokalaria zenak Erregionaleko lehen mailan hartu zuen taldea 1992-93 denboraldian eta urtebete beranduago Preferentera igatea lortu zuen. Hurrengoan berriz jautsi baziren ere, 1995-96 denboraldian Preferentera itzuli ziren Beti Gaztekoak, Erregionaleko liga, kopa eta kiroltasuna irabazi ondotik. Aurten, asteburu honetan jokaturako azken jardunaldiaren ondotik mirariren bat gertatu ez bada, berriz ere maila galduko du Lesakako taldeak, baina Koldorentzat balantze positiboa da: «Gauza onak eta txarrak paretan paratu eta aunitzez gehiago dira oroitzapen onak». Inguruan izan dituen laguntzaile, zuzendari, jokalaria eta afizioa eskertu nahi izan du Erkizia bere agurraren orduan eta Beti Gazterekin lotua segituko omen du.



Koldo ERKIZIA

BITTIRIA HARATEGIA
© 948 627555
Bittiria, 43 • LESKA

Lurrindanda
Marian
endiberrri
Estetika
Behoko Plaza 8 © 948637791 • LESKA

UDAKO IKASTARO TRINKOAK

LESKA ETXAKO

Elena ENGLISH

deitu lehenbailehen

Udako Ikastaro Trinkoak errekuperazioak

- Talde ttikiak
- Ordutegi malgua
- Haur eta nagusiak

% 948 637 584 - 608 195641
arratsaldez

XATURETXEA
Zuzen
JATEIXEA
Tfnoa: 948637027 LESKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
© 948627573 • LESKA

IRU BIDE
ERRETXEA
Tfnoa: 948 637 127
LESKA

IGANTZI

Lesakako hiru gaztek hartu dute udan igerilekua zaintzeko ardura

Kontsulta lekuz aldatzeko laguntza ukatu du Nafarroako Gobernuak

OSKAR TXOPERENA

Maiatzeko bilkuran zenbait gai interesgarri ukitu zituzten zinegotziek. Titulu nagusian diogun bezala uda honetarako piszina zaintzaileak zituzten aukeratu beharrak. Egindako bi eskaintzen artean Eneko Fernandez, Nerea Iriarte eta Igor Portu lesakarrekin egindakoa iduritu zitzaizen egokiena, 600.000 pezetako aurrekontua zuena (BEZ barne).

Zenbait oihan zati ere enkante edo subastan ateratzea ere onartu zuten, Pionbordan eta Mendibilko erreka inguruan. Insignis pinuak, haritzak eta alertzez osatutako loteek bederatzita milioi t'erditan aterako dira enkantera. Mendibilko errekan markatutako bertze zatia momentuz ez ateratzea era-

baki zuten.

Bertzalde, kontsulta eskola azpitik herriko iturrira eramateko proiektuak bertze urte baterako utzi beharko dela jakin ahal izan dugu, Nafarroako Gobernuak aurtengoz dirulaguntza ukatu baitio.

Bataio, konfirmazio eta komunioak

Negu parteko geldialdia alde batera utzita, Elizarentzat ere ospakizunetarako garaia izaten da hau. Hasteko, maiatzaren 14ean bortz haur bataiatu zituzten: Jokin Mitxeo, Enaitz Telletxea, Raul Zelaiaeta, Eider Lizarrondo eta Aitor Txoperena. Ez da gaur egun horrelako koadrillarik maiz biltzen. Aralarko San Miguel ere izan zaigu tarte honetan. Maitzaren 22an izan genuen gure artean herri guzietara urte-



Haurren kanpaldiak

Kanpaldiak joan zaizkie hurrei, ikasturtearen azken zatira ailegatu direnaren seinale. Ekainean goizetik bakarrik joanen dira eskolara eta ongi pasatzeko aukerak ere izanen dituzte oraindik: ekainaren 2an Haurraren Eguna eta 16an urtero egiten den ateraldia, Landetara iaz bezala. Argazkian, Haur Hezkuntzakoak ageri dira Hondarribi aldera abiatzerakoan. Oskar Txoperena

ro egiten duen bisitan. Joan den igandean, berriaz, zazpi gazteren konfirmazioa ospatu zen,

eta azkenik, bortz izanen dira ekainaren 11an lehendabiziko jauntxerak ospatuko duten

haurrak: Nerea Bertiz, Ander Mitxelena, Itziar Rojo, Eila Sagastibeltza eta Beñat Txoperena.

ANA
janaridenda
Bittiria, 41 • ☎ 948637518
LESAKA

Lanchas
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera ☎ 948630735

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

Pinturak eta barnizak
LESAKA
☎ 686 805435
☎ 948 637556
Manuel Zamorano

IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU
• Liburuak
• Papertegia
• Tabakoa
• Plastifikazioak egiten ditugu
• FAX publikoa
• Enkuadernatzeak
• Inprenta lanak
Enkuadernatzeak espiralean ere egiten dira
Legarrea, 9 • ☎ 948 637 030 • LESAKA

KAXULÆ
- Sukaldeko tresnak
- Opariak
- Pinturak
Albistur, 51 LESAKA
☎ 948 63 75 58

KOXKILA OSTATUA
Zarandia, 4 - LESAKA

ARANTZA

Igantzioko harrobiko zubia haunditzea eskatu dio Udalak Nafarroako Gobernuari

Berrizaungo bidegurutzeta moldatzen ez dela ikusita berriro egin da eskaria

ELIXABET ETA GARBIÑE

Igantzioko Bentatan obra egiteko proiektua aspaldi onartu baldin bazen ere, oraindik ez dira hasi eta, itxuraz, ez dira abudo hasiko. Bentatako bidegurutzeta kaxkar eta arriskutsua ikusirik, Herriko Etxeak berriro ere bere eskaria luzatu dio Nafarroako Gobernuari: harrobiko zubia haunditu dezate-la, behinpein. Iaz onartu zen proiektuaren arabera Igantzioko bentetan errotonda bat eta harrobiko zubia haunditzea adostu zen.

Eskoletan obrak

Eskoletan berriro ere lan batzuk egiteko in-tentzioa dagoenez, horretarako behar beharrezkoa den dirulaguntza eskatzea adostu zuen Udalak. Egin nahi diren berrikuntzen arte-



Eskolako haurren antzezlanaren Iruñean

Hirugarren zikloko haurrak Iruñean egon ziren maiatzaren 29an, Nafarroako Gobernuak antolatutako antzerki lehiaketa batean. «Kandidoren apustu latza» eskaini zuten Eneko, Joseba, Alberto, Borja, Uxue, Maider, Aitziber, Leire, Andoni, Imanol, Josu eta Aintzane.

an, uraren tuboa aldatzea dago, orain artean ura hagitz zikina heldu delako. Horretarako, patioa zola guzua altxatu behar da. Bertzalde, paretak pintatu beha-

rean daude eta bi sarreretako ateak aldatu nahi dira, ate sendoak eta seguritate zerrailak paratuz. Dirulaguntza jaso bezain laster hasiko dira lanak.

Ateraldiak eta kanpaldiak


Eskolako haurrek, ikasturtea akautzear duten honetan, ateraldiak eta kanpaldiak egin ari dira. Honela, Le-

hen Hezkuntzako haurrak Hondarribian egon ziren maiatzaren 15etik 17ra, Bortzirietako bertze hurrekin batera. Haur Hezkuntzako tikiak ere Hondarribian egon ziren, maiatzaren 18 eta 19an. Honetaz gain, 3. zikloko haurrek Donostian pasatu zuten eguna ekainaren 1ean. Goiza izotz-pistan pasatu eta Santa Klara ir-lan bazkaldu zuten. Ikasturtea akautzeko, ekainaren 23an ateraldia egingen dute eskolako haur guziek.

Elkartasun Astea

Euskal presoak Euskal Herrira ekimenak deitutako Elkartasun Astea egin zen joan den astean. Gazte Asanbladak ekainan gose greba egiteko deialdia zabaldu du. Oraindik data finkatu ez bada ere, asteburu bat hartuko litzateke.

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo-zgarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz. **Termita eta Polillen kontrako tratamendua**



☎ 948630155
BERA



ikinarria eraikuntza
ldaketak eta despiezea
intzenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadoreak

Igantzioko Bentak • ☎ 948 627572 • Faxa: 948 637508

Jose Canabal
elektrizista

☎ 948 637541
☎ 666 575899
IGANTZI

Alberto RETEGI
abokatua

Altzate 17
BERA
☎ 948 630 763



EKAITZA
Hostala • Kafetegia
Gelak TB eta bainuarekin

Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESKA**



ZALAIN
JATETXEA

Zalain Auzoa
☎ 948631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira



ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzioko Bentak • ☎ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

ETXALAR



Urrezko Ezteiak

Apirilaren 15ean Mañula Goienetek eta Emilio Negueruelak euren urrezko ezteiak ospatu zituzten. Kantabriarra mutila, Etxalarren egin zuen soldaduzka eta bertan ezagutu zuen Agerberrea baserriko neskatza. 1950ean ezkondu eta Urretxura joan ziren bizitzera. Loiolan bildu zen familia zeremonia hunkigarrian eta gero bazkari ederra egin zuten.

Gasna Feria igande honetan, eriaroaren 4an, egingen da

Haurren Eguna, berriz, eriaroaren 11n

PELLO APEZETXEA

Goizeko hamar eta erdietan emanen dio hastapena egunari artisaunen erakusketak. Aspaldiko hainbat eskulan ikusteko aukera eskeini-ko digute. Ikusteko eta erosteko ere bai. Hamaitakak egin nahi izanez gero, arto-opila, txistorra eta gasnarik ez da faltako. Etxera eramateko gasna ere, hainbat tokitakoa, salgai egonen da. Eta zein baino zein hobea, mahai-

koen ustezko hiru onenek saria eramanen dute. Plazan bertan plantatuko den bazkariak emanen dio akabaila goizari, Iparraldeko bertsolari gazteek alaituko duten bazkari eta bazkalondoa: Amets Arzallus, Sustrai Colina eta Miren Artetxe; Manolo Arozena gaiak ematen. Bertso saioaren ondotik zozketatuko da gasna saritua. Eta herriko trikitixa musikaz gain, erakusketa eta salmen-ta arratsaldez ere luza-

tuko da. Artisauna eta herriko eskulanena. Andre Mari Elkarteko bil-tokian eskulangintzako ikastaroan egindako zenbait gauza ikusgai egonen baita.

Haurren Eguna 11n eta ez 18an

Aintzineko TTIPITTAPAN Haurren Eguna eriaroaren 18an izanen zela idatzi banuen ere, ez da egia, zeren eta aste bat lehenago izanen baita. Urtean berrera eskolan egiten jo-

an diren lan batzuk erakutsiko dituzte, plazan, eta Ipuin Topaketarako idatzitako ipuin labur batzuk irakurri, 12ak eta laurdenak aldera. Parte hartu duten guzietan emanen zaie, beti bezala. Plazan bertan haurrek bazkaldu ondotik, antzerkia ikusgai izanen da, hau nahi duen guzientzat, lauak eta erdietan, Iruñeko Pimpilinpaua Taldearen eskutik. «*Sekula guztirako bideak*» du izena antzerkiak.

flash

Euskal Nortasun Agiria

edo euskarazko karneta egiteko aukera izanen du jendeak Gasna Feria egunean. Udaletxean ENAkoek hiru orduz nahi duen guziari karneta hori egingen diote.

Katekesiaren akabailako besta

Maiatzaren 23an egin zen bestarekin eman zitzaion akabaila Katekesiako urteari. Eguraldi ederrak lagunduta, arratsaldeko ordu pare batez plazaren jabe egin ziren haurrak.

© 948631076 • BERA

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
 © 948635290 ETXALAR

«**USOA**»
 NEKAZARI KOOPERATIBA
 Ganaduarentzat pentsurik egokiena
 Tfnoa: 948635214
ETXALAR

LESAKA

HARITZPE
 948635235
 948635038
GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK
 Egunero idekia. Asteazkenetan atsedean eguna.

Ostargi Optika
OPTIKO OPTOMETRISTA
 Uda honetan erabiliko dituzun eguzki betaurrekoak oraindik ez dituzula?
OSTARGI OPTIKAn eguzki betaurreko graduatu zein graduatu gabeak topatuko dituzu. Modelo eta prezio guzietan.
 Bidasoa karrika, 8 • BERA • © 948 63 07 53

SUNBILLA



Sendotza egin zuten gazteak apezarekin batera.

Foto Mena

Sendotza egin zuten hogeita hiru gaztek

Maiatzaren 13an hartu zuten sakramentua

JAIONE ETA ALBA

Maiatzaren 13an sendotzak ospatu ziren Sunbillako elizan. Hamasei eta hamazazpi urteko hogeita hiru gaztek hartu zuten sakramentua eta beraien familiarekin batera Elor-Txuri jatetxera joan ziren afaltzera, egun berezi hori ospatzeko asmoz.

Ikasturte akabaila hurbil

Ikasturtea aitzinera doan neurrian eguraldi ederra ere azaltzen hasi da. Eskolako haurrak arratsaldea aprobetxa dezaten, ekainean goizean bakarrik joanen dira eskolara. Ekainaren 24an akituko dituzte klaseak eta egun horretarako ekintza bereziak prestatuko ditu Antza-

kaitz kultur taldeak.

San Migelen bisita

Bertze elizkizun berezia ere izan zen gure herrian joan den maiatzaren 21ean. San Migel etorri zen bere urteroko meza ospatzera eta erran behar da jende ugari hurbilduo zela igande arratsaldeko 6etan goiangerua agurtzera.

ITUREN

Trinitate Eguna ekainaren 18an ospatuko da

Mendaur tontorreko basilizan meza izanen da

IBAN ISASI

Aspaldikoa den bes-ta hau aurtengoan ekainaren 18an ospatuko da herrian.

Urtero bezala meza izanen da Mendaur tontorreko Trinitate basilizan. Ondotik bazkaria izanen da urtegi eta azkenik dantzaldia Iturengo plazan. Hurrengo alean, musika taldearen izenaren berri emanen dugu.

Sorginen Laratza programara bidaia

Oraindik ez da bete Ibintza Kultur Taldeak, Sorginen Laratza, Euskal Telebistako programara joateko antolatutako autobusa. Aipatzekoa da egun hori izanen dela programa



Trinitateko ermita, Mendaurren.

ma honek udako oporrak baino lehen, egiten duen azkeneko programa.

Oraingo honetan, aipatu behar inguruko herrietara luzatzen dela proposamen hau, eta izena emateko hurrengo telefonora deitzen ahal duzuela: 948 450004.

BEINTZAKO OSTATUA
© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

ETXANDI TXOKO jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

MARTIKO
Gure baserrietako produktuak

© 948 625016 • Fax 948 625036
Alkaiaga Industrialdea • BERA

MALEERREKA



Ezkurra Memorialaren finalak ekainaren 10 eta 11n jokatuko dira

Adin guzietako ehundaka pilotarik jokatu dute txapelketa

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, eskualdeko ehundaka pilotarik hartu dute parte Jose Ezkurra zenaren omenen antolatutako eskupilota txapelketan.

Pre-benjamin adineko ttikienetatik hasi eta pilotagoarekin arirudiren helduak arte, pilotapartidu aunitz ikus-teko modua izan da txapelketa honetan. Sei kategoriatan banatu dira partehartzaileak: Pre-benjamin edo ttikiak, benjamin edo umeak, alebin edo haurrak, gaztetxoak edo infantilak, kadeteak eta helduak.



Adin guzietako pilotariek hartzen dute parte Ezkurra Memorialean.

Kategoria guzietan azken txanpan sartuak dira. Asteazken hone-

tan finalerdiak jokatu dira eta ekainaren 10 eta 11ko asteburuan, la-

runbat eta igandean, finalak jokatu dira Doneztebeko udal pilotalekuan. Larunbatean ttikienak ariko dira eta igandean nagusiagoak.

Mikel Goñi eta Asier Olaizola lau terdian

Igande honetan, ekainak, 4 arratsaldeko betatik aitzinera, Nafarroako lau terdiaren barreneko txapelketaren partidu interesgarria jokatu da udal pilotalekuan: Mikel Goñi, Asier Olaizolaren kontra. Aitzinetik, Galarza V eta Auxkin, Atxa eta Otxandorenaren kontra ariko dira. Sarrera, 2.500 pezeta.

flash

Arkupeak elkarteak Bizkaiara

Arkupeak erretiratuen elkarteak Bizkaiara bidaiatu du ekainaren 9rako. Kostaldeko herri ezberdinetan gelditu ondotik Gatikan bazkalduko dute. Zehazki, Sopela eta Getxoko Barrika eta Larrabasterra hondartzak, Plentzia, Gorniz, Armintza, Lemoiz, Bakio eta Gaztelugatxeko San Juan basiliza bisitatuko dituzte. Gatikan bazkal ondoren dantzaldia izanen dute.

Doneztebeko udal kiroldegiko arduraduna

Iñaki Sese beratarra izanen da Doneztebeko udal kiroldegiko arduraduna hurrengo lau urte terditan. Kiroldegiaz gain, eskolako gimnasioa, pilotalekua, igerilekuak eta igerilekuko ostatuak kudeatuko du. Bi proposamen aurkeztu ziren, biak Doneztebeko Udalak proposatutako gutieneko kopurua (1.500.000 pezeta) ordaintzeko prest. Zozketa egin zen eta Iñaki Seseri eman zaio ardura.

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Donztebe

MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
 Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik
 edozein herritara trasladoak
 Tfnoa: 948637404 • LESAKA
 Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

Ibarrola Mertzzeria
 Haurmendakako arropa
 0-14 urte
 Parroquia Kalea 6 - Donztebe
 948450463

**Udaberri eta udako
 lentzeria eta
 bainujantzien
 kolekzio berria**

LENTERIA

Parrokia 11
 Tfnoa: 45 01 12
 DONEZTEBE

MUSIKA

Baztan, Malerreka eta Bidasoa aldeko hirugarren Trikitilari txapelketa abian da

Ekainaren 20an akautuko da izen emateko epea

TTIPI-TTAPA

Azkeneko bi urteetan bezalaxe, aurten ere Baztan-Malerreka-Bidasoa aldeko trikitilari txapelketa egingen da. Hirugarren edizio honetan parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago, ekainaren 20a arte. Horretarako 948 637907 edo 636 739555 telefonoetara deitu behar da (Jone Elgorriaga).

HAMABI URTE BAINO GAZTEAGOAK ETA HAMABITIK HEMEZORTZI URTE ARTEKOAK

Aurtengoan berrikuntza nagusia parte-hartzaileak bi multzotan banatu direla da, adinaren arabera. Orain arte panderojole eta trikitilari gaztetxoek jotzen zuten, baina aurten ttikienek ere plazaratzeko aukera izanen dute. Izan ere, alde batetik hamabi urte arteko musikariak ariko dira eta hauek Fandangoa eta Arin-arina jo beharko dute. Bertzetik, 12 eta 18 urte arteko neska-



Joan den urteko finalistak, Lesakako sanferminetan egin zen saioaren ondotik.

Artxibokoa

mutilak ariko dira. Hauek ohiko piezak jo beharko dituzte: trikititxia, porrusalda, fandangoa eta arin-arina. Halere, partehartzaile kopurua handia balitz, piezetako bat kendu egingen litzateke.

FINALA LESAKAKO SANFERMINETAN EGINGEN DA

Aurtengo honetan ere kanporaketak egingen dira eta kategoria bakoitzean puntuaziorik altuena eskuratzen

duten zortzi bikoteek lortuko dute finalerako txartela. Kanporaketa bat Doneztebeko bestetan egingen da. Bigarren kanporaketaren data eta lekua oraindik zehaztu gabeak daude hau idazterakoan. Joan den urtean bezala, finala Lesakako Sanferminetan egingen da, eguna oraindik zehaztu gabe bada ere. Bai kanporaketetan, baita finalean ere partehartzaileek base-rritarrez jantzita aurkeztu beharko dute.

Epaimahaikideen lana jendearen aitzinean egingen da, puntuazioak arbel batean ikusgai paratuko baitira. Puntuatzerakoan kontuan hartuko diren zenbait puntu soinuaren ejekuzioa, trebetasuna, doinuaren zailtasuna, neurria eta erritmoa, panderoaren ejekuzioa, ahotsa eta kantua, espresioa eta plazarako jarrera, pandero eta soinularien elkar hartzea eta bertsoak edo koplak (berritasuna, erranahia...) iza-

ELGORRIAGA

Elgorriagarren bilkura egin zen maiatzaren 7an herrian

Maiatzaren 7an egin zen bigarren aldiz Elgorriaga abizenaren dutenen bilkura, non eta Elgorriagan bertan noski. Joan den urtean bezala, mezarrekin hasi ziren eguneko ekitaldiak. Ondotik, herritarrek presatutako eskulan feria izan zen, Lesakako Elgorriaga ahizpen trikititxia eta fanfarrearen musikarekin alaitua. Gero, bazkaria izan zuten eta eguna akautzeko dantzaldia.

Heldu den urtean ere berriz ere biltzeko asmoa dute Elgorriagarrek, apirilko azken igandean. Nafarroako Onddo eta Zizen Kofradiak antolatzen duen ekitaldi honetara gero eta jende gehiago hurbiltzen da. Elgorriagako urteko besta egitarauan ere bere tarte hartu du.

BAZTAN-MALERREKA-BIDASOAKO III. TRIKITIXA TXAPELKETA

Bi adinetan banatua:

- 12 urte artekoak
- 12 urtetik 18 urte artekoak

Izen-ematea:

- Ekainaren 20a baino lehen 948 637907 edo 636 739555 telefonoetan (Jone)

AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA

MENGHINI AKORDEOIAK Angel Manuel Belio

AKORDEOI eta TRIKITIXA KLASEAK • MUSIKA LENGUAIA

Kirolaz gain, MUSIKA ere egin ezazu

DOMINENA Etxea - San Andres Karrika, 40 NARBARTE • © 943 - 61 50 55 •

GOIZUETA

Irrati bat izanen da herriarentzat ekainaren 12tik 16ra

Xorroxinen ekipoa erabiliko da eta FMko 107an emitituko du

ESTEBAN AROTZENA

Xorroxin Irratiaren ekimen bati esker, Goizuetak ere bertako irratia izanen du ekainaren 12tik 16rako astean. Ekipoa eskoletan muntatuko da eta FMko 107an entzun ahal izanen da etxe guzietan.

Lerro hauek idazterakoan, programazioaren ordutegi zehatzik ez jakin arren, esan dezakegu goizetako emisioak eskolak hartu dituela bere gain. Arratsaldetakoan sustatzaile edo arduradun nagusia, berriz, Imanol Legarreta izanen da.



Herriko itxura hainbeste hobetuko duen zeharbidearen lana atzeratu egin da berriz ere.

Zeharbideko lanak

Orri hauetan behin

baino gehiagotan aipatu den trabesiaz berri

txarrak datoz Herriko Etxetik. Lanaren aurre-

kontua ez da eraikitzaileen gustokoa izan, bi-

garren deialdi batean %10igo baldin bada ere haserako diru kopurua. Orain prozesua berritik hasi beharko da (proiektua berritu, Iruñarekin negoziatu, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta prentsan argitaratu... Guzi honek bertze hilabete batzuk luzatuko omen du lanen hasiera.

Ikasturte bukaerako kontzertua

Musika eskolaren ikasturte bukaerako kontzertua ekainaren 10ean, larunbata, izanen da. Eguraldiak laguntzen badu, plazan egingen da arratsaldeko 5,30etatik aurrera. Bestela, eskolako pilotan plazan izanen da.

ARESO

Obrak egiteko eta hondakinak botatzeko baimena eskatu behar da

Udalak erantzuna emango die eskariei

JUANA MARI SAIZAR

Azken bolada honean haibat hitzbide sortu dituzten gaiak, obrak eta berrikuntzak dira. Beraz, derrigorrezkoa da edozein motatako obrak egin aurretik Udaletxean baimena eskatzea eta aurrekontuaren %2a ordaindu beharko da tasa bezala.

Hau, aurtengo hilbertzean Udalak jarritako araua da. Haserrea sortzen ari den beste gai bat obra hondakinak non bota da. Baimenak eman direla eta ez direla, gorabehera dextente sortu dira. Eskariak Udaletxean sartu behar direla esan du Udalak eta hauei erantzuna emanen zaiela.

Kaldeosoroko zubiko harlauzarekin mahaia egingo da Ilunben

Kaldeosoroko zubiaren harlauza haundia Ilunbeko betelana egin zen zelaian mahaia egiteko jartzen ari dira. Inguru hori txukundu, belar hazia bota eta leku atsegin bat osatu nahi



Obrak egiteko eta obra-hondakinak botatzeko baimena eskatu behar da Udaletxean. Artxibokoa

dute, denon probetxurako.

Aizaga abesbatzaren emanaldi ederra

Aizaga Ganbara ko-

rala izan zen maiatzaren 21ean elizan. Eman-kizun polita eta hunkigarria eskaini zuten eta nabarmen utzi zuten sari asko irabaziak zituztela.

LEITZA

Kiroldegiaren proiektua onartu du Udalak

223 milioi pezetako aurrekontua izanen du

JOSEBA AZPIROZ

Maiatzaren 19an egindako aparteko batzarrean, Udalak, EH eta UPNko botoekin eta EAren abstentzioarekin, kiroldegiaren proiektua onartu zuen. Kiroldegia txantreen atzealdea eta eskolako parkearen tartean eraikiko da eta 223 milioiko aurrekontua du. Eraikuntza lanen adjudikazioa lehiaketa bidez egingen da eta horren ediktua Nafarroako Aldizkari Ofizialera bidalia da dagoeneko. Argitaratzen denetik 26 egunetako epea irekiko da entresak beraien eskaintzak aurkezteko. Aukeratutako entresak Udalak bere erabakia jakinarazten dionetik, 15 egun izanen ditu obrak hasteko eta 12 hilabete bukatzeko.

Leitza-Ezkurra errepidea

Nafarroako Gobernuak Leitza eta Donez-

tebe arteko errepidea moldatu edota berritu nahi du. Fase ezberdinetan egiteko asmoa erakutsi du eta horietako bat, Leitza eta Ezkurra gaina artekoa da. Nafarroako Gobernuak teknikoek Udal ordezkariekin egindako bileran Gorritzarango bailara gurutzatuko lukeen bide berri bat egiteko zuten asmoa erakutsi zuten. Egoera honen aurrean, Udalak EH taldearen zinegotzien aldeko botoekin eta EA



Nafarroako Gobernuak proposatutako trazatua Gorritzaran auzotik igarotzen da. Diario de Navarra



Presoen eskubideen aldeko geldialdia eta manifestazioa

140 lagunek parte hartu zuten presoen eskubideen aldeko geldialdia zela eta, maiatzaren 25ean egindako manifestaldian. Geldialdia ia osoa izan zen komertzio eta zerbitzutako entresetan. Irakaskuntzan berriz, institutuko irakasleak paroa egin zuten (ikasleek egun osokoa) baina lehen hezkuntzako eskolan ez zuten egin. Eraikuntzako sektorean ere paroa orokorra izan zen. Sarrion, batzar informatiboak egin ziren.

eta UPN taldeen zinegotzien aurkako botoekin trazadu berria eskatzen duen ideari ezez-

koa ematea eta lehengo errepidea ahalik eta gehien aprobetxatzeko eskatzea erabaki zuten. Erabakia hartzeko garaian kontutan edukitako argudioa garrantzitsuenak izan dira afekzioz gabeko lur eremua behar dela; ingurugiro aldetik kostu izugarria izan dezakeela eta eragin soziala ere handia dela eta bertan ibiltzen den kotxe kopuruak ez duela justifikatzen horrelako azpiegiturik. Hau ikusita, Nafarroako Gobernuak Herrilan, Garraio eta Ko-

munikabidetako Departamenduak «irtenbide negoziatua» bilatuko duela esan du.

Leitzako moto iguera igandean

Ekainaren 4an, igandea, arratsaldeko 3etatik aurrera, Motoklub Motokrak taldeak antolatzen duen eta Nafarroako txapelketan puntuagarria izanen den Leitzako Igoera burutuko da. Motoristak Amazabal ingurutik aterako dira eta Basa-Kabi baino lehentxeago bukatuko dute frogak.

ANTOJOS
boutique pre-mama

Arbelaiz Jauregia
Iglesia karrika 8
(Nafarroako Ibilbidearekin eskin egiten)
Tel.-Fax: 943 63 41 70 • IRUN

TOLDOS BAZTAN

Presta zaitez udarako!

- Eguzkitik babesteko toldoak
- Manualak, elektrikoak, urrunetik irekitzekoak
- Kamioiendako gisa guzietako toldoak (irristatzaileak ere)
- Errotulazioa

SALMENTA
ALOKAIRUA
KONPONKETA

☎ 948 63 10 03 • 629 01 59 23

Baldrun 8, Alkaiaga industrialdea • Lesaka • SARRERA BERAKO ZALAIN AUZOTIK

BAZTAN

Aparkatzeko leku gutiago izanen da Elizondon trafiko araudi berriaren arabera

Zubietan eta karriketako zati estuenetan ezin izanen da autorik utzi

TTIPI-TTAPA

Elizondon sortzen diren zirkulazio arazoak moldatzen saiatzeko trafikoko araudi berria ezarriko da. Araudia lehengoaren gisakoa da, baina Balleko Udalak, bizilagunen laguntza eskatzeaz gain, xuxenago zainduko duela segurtatu du. Halere, aldaketaren bat edo bertze ekarriko du araudi berriak. Honela, aparkatzeko lekuak gutiago izanen dira eta zubietan eta karriketako zatirik estuenetan ezin izanen da autoa utzi. Santiago karrikan, Elizalde eta Elizetxea etxetik Maria Azpilikueta karrikako bidegurutzea bitarte aparkatzea debekatuko da. Gainerakoan, Iruñeko norabideak karrikaren eskuinaldean bakarrik aparkatu ahal izanen da. Zama hartzeko eta uzteko eremuak utziko dira Galarregi supermerkatuaren ondoan eta Iturralde botikaren aitzinean. Jaime Urrutia karrikan zati ezberdinak bereizten ditu araudiak. Honela, Gil-



Hamabi ordu laisterka eskuararen alde

«Hamabi Ordu Eskuaraz» bestaren barnean antolatutako kirol ekintzan, beste batzuren artean, Baztan Ikastolak ia ordu bat laisterka eskuararen alde ibiltzeko aukera aprobetxatu zuen. Maila guzietako umeek, guraso eta irakasleek lagunduta, parte hartu zuten lekukoa eramanez.

txaurdi karrikatik Antxitoneako zubira bitarte eskuinaldean uzten ahal dira autoak, baina Elizalde estankotik Abastos plazara debekatua egonen da aparkatzea. Burges karrikatik Giltxaurdi karrikara arte, bi aldeetan aparkatu ahal izanen da eta Antxitoneako zubitik Mendiñueta karrikako bidegurutzera, ezker al-

dean uzten ahal da autoa. Zama hartzeko eta uzteko lekua izanen da Elizalde estankoa eta Ziauriz harategiaren artean eta Adela janaridenda eta Futbolin osatuaren aitzinean. Autoa ezin izanen da utzi Antxitonea eta Opoka zubietan, ezta Virgilio-ren maldan ere, Javier Ziga pintorearen plaza-tik Santiago karrikara.

Braulio Iriarte karrikan, Mendiñueta karrika eta Antxitonea zubiko bidegurutzetik, orain arte bezala segituko da. Baina hortik Giltxaurdi karrikara, debekatua izanen da bi aldeetan aparkatzea, Ernauteña eta Giltxaurdi artean ezik, hemen eskuinean aparkatzeko baimena izanen baita. Giltxaurdi karrikatik Erabeta al-

dera, eskuinaldean uzten ahal da ibilgailua eta Pedro Axular karrikan, bi aldeetan.

Baserrietatik isurtzen diren ur zikinaren aurkako denuntziak

Guardia Zibileko Seprona erakundeak denuntzia auzitegi egin du zenbait baserrietatik egiten diren ur-zikin isurien aurka. Hau ikusiz, Balleko Udalak baserriak legedira egokitu arte denuntziarik ez jartzeari eskatu dio erakunde ezberdinei. Patxi Oiartzabal alkatearen ustez, «baserriek mendeak dituzte eta ezin dira egun batetik bertze-ra legedira egokitu, hori ulertu egin behar da».

Erreka batetik 50 metro baino guttiagora dauden belagiak pizarekin bustitzeagatik edo zuzenean errekarara isurtzeagatik egin dituzte guardiazibilek denuntziak. Udalak, bere aldetik, egiten ari diren Balleko saneamendu planeko lanak burutzeko asti pixko bat eskatu du.

JATETXEA
 © 948 580101
 Santiago 1
 ELIZONDO

**MENDI
 OSTATUA**

Santiago 25 - © 948 580313
 ELIZONDO

ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA

ARGIBEL OPTIKA

© 948 581 391
 Santiago 62 - ELIZONDO

Aukera zabala

- Anteojoak
- Lentillak
- Audifonoak
- Errebisioak

BAZTAN

Berroetako Mendekoste bestak ekainaren 9tik 12ra ospatuko dira

Larunbatean magoak izanen dira

Ortzirala, ekainak 9
8,30etan altxaferoak beste hasiera emateko. 10etan herri afaria izanen da JOXE ANGEL akordeolariak alaiturik.

Larunbata, ekainak 10
12etan haurrendako jokuak herriko plazan. 5etan haurrendako magoak izanen dira pilotaplazan. Arratseko 8etatik 10etara eta 1etatik goizaldera dantzaldia MEDIA LUNA taldearekin.

Igandea, ekainak 11
12etan Meza Nagusia, Elizondoko Abesbatzak kantatua. Ondoren, herriak hameketakoa eskainiko die hurbiltzen direnei. Ekitaldi guziaz txistulariek alaituko dute. 1etan esku pilota par-



Bertze urteetan bezala, herri afariarekin akituko dira aurten ere Berroetako Mendekoste bestak.

tidak. 7etan herri kirol erakustaldia. 8etatik aitzinera Mindegia anai-arreben trikitixa emanaldia.

Astlehena, ekainak 12
12etan mus txapelketa. Ondoren zikiro-jatea, JOXE ANGEL akordeolariak

alaituko duelarik. Arratsean herri afaria izanen da eta bestak akitzeko «Pobre de mi».

Etxekoekin kontzertuak aditzeko zikloa zabaldu da Arizkunenean

Etxeko guziak musika aditzera joateko aitzaki polita paratu dute Arizkunenean. «Kontzertuak etxekoekin» zikloaren barnean, musikaz gain, jokuak, kontakizunak eta bertze kontu aunitz izanen dira.

Larunbat honetan, ekainak 3, arratsaldeko 7,30etan «Haurren

jostailuak» emankizuna izanen da. Madrilako Ganbara Operak Bisseten lana musikatuko du eta Fernando Palacios aurkezleak joku ezberdinak proposatuko ditu, musikaren erritmoan.

Ekainaren 11n, igandea, arratsaldeko 7,30etan «Soka eta hai-zea» kontzertua eskainiko dute

Roberto Casado (txirula) eta Elisabeth Colard-ek (arpa).

Bertzalde, 2000. urteko Arte eta Kultura kanpainaren barnean erakusketak ere izanen dira Arizkunenean. Haurren margo tailerreko lanen erakusketa ekainaren 16a arte zabalik dago. Ekainaren 2tik 22ra, berriz, Iruñeko Arte Eskolako ikasleen lanak ikusgai izanen dira, arratsaldeko 7etatik 9etara.

flash

❖ **Irakaskuntza euskara normalizatzeko** hamar puntuekin bat egin du ahobatez Balleko Udalak, EH taldearen mozioa onartuz. Akordio horren berri emanen zaio Jesus Laguna, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza kontseilariari.

❖ **Eskoletan lanak egiteko dirulaguntza** eskaria egin du Balleko Udalak. Nafarroako Gobernuaren laguntza Haur eta Lehen Hezkuntzako eskolei zuzendua dago. Lan hauetarako eskatu du laguntza Udalak: Erratzun errekreio lekua moldatzeko; Almandozen eskola moldatu eta klimatizatzeko; Gartzainen teilatua moldatu eta eskola ondoko pilota plaza moldatzeko eta Elizondon lan ezberdinak egiteko, kalefakzioko tuberia moldatu, bertzeak bertze.

❖ **Saneamendu sareko** biltegiek gainezka egiten dute herri batzuetan, Amaiur eta Gartzainen adibidez. Arrazoia zera da, baserri eta ikuiluetan garbiketa egin ondok belar idorra pilatzen dela. Baserriko xareten diseinua aldatzea eskatu diote Iruñetik Baztango Udalarari.



BAZTAN

ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

MENDIALDE Jatetxea



AMAIUR • © 948453060



BAZTAN FUNERARIA

EHORZKETA ZERBITZUAK
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
TRASLADOAK

Menditurri, 1 • ELIZONDO • © 948 580373 • 608 776176

BAZTAN

URDAZUBI

Euskal Nortasun Agiria egiteko aukera Arizkunenean

Euskal Nortasun Agiria edo euskarazko karneta egiteko aukera izanen du jendeak ortziral honetan, ekainak 2, arratsaldeko 7,30etatik aitzinera Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Baztango Gazte Asanbladak ekarri ditu ENAkoak Elizondora. Euskal Nortasun Agiria bertan egiteko, norbere argazkia eta 1.000 pezeta eraman beharko ditu.

Euskal Herri osoan euskal karneta egiteko kanpainaren barnean sartua dago ekitaldi hau. Ortzilerian, Elizondon izanen da egiteko aukera.

Urdazubiko lasterketa gauazkolarien bideetan egingen da igande honetan

Sei kilometro eta bederatzirehun metroko ibilaldia egingen dute

MARGARI ETA KORO

Igande honetan, ekainak 4, Urdazubiko bes-ten barrenean egingen den herri lasterketa abiatuko da arratsaldeko 6etan. Gauazkolarien bideetan izena eman diote lasterketari eta 6.900 metroko luzera izanen du, goiti eta beheiti ibiliko den zirkuitu baten barna. Parte hartzaileek, gaueko langileen gisara, zama arin bat eramanen dute hasierako 200 metrotan eta akabailakoetan, «*itxura egiteko izanen da*», Andres Diharasarri alkatearen erranetan. Urdazubiko plazatik abia-



Hasmentan eta akabailan zama arin bat eraman beharko dute gauazkolarien lasterketan parte hartzen dutenek.

tuko dira partehartzailak, 90 metroko altueran. Hortik, Irigoiena, Iribere eta Axularren barna pasatuta, Argan-

doitara iganen dira (351 metro). Hortik, Urdazubira bueltatuko dira. Heritik Azkar kaxkora iganen dira (435 me-

tro). Matonekoborda eta Mitxelenbordatik, argandoitara ganen dira, berriz ere Urdazubiko plazara itzuli aitzin.

INTERVIDEO
 Bideo Profesional erreportaiak • Ezkontz erreportaiak
 Tel: 948.599.055

ttipi-ttapa Zure publizitatea etxe xoko guzietan
 7.100 harpidedun 24.000 irakurle
 ☎ 948 63 11 88

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE
ANZABAL
 A G E N T Z I A

- **Zurich Aseguruak**
 • Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 • Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 • Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 • Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 • Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tinoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

Maderas GOMEN

- Era guzietako atek, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gartzainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gartzaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

PAGOLA
 TXISTORRAREN IZENA
 ☎ 948 630 054
 Alzateko Plaza, 2
 BERA

SARA

Presoen aldeko martxa egingen da Larrunerat igande huntan

Sara, Bera eta Azkaineko plazetatik abiatuko dira

ANA MARI ETA FRED

Azken alean aintzinate bezala, euskal preso politikoen aldeko martxa bat egingen da Larrunerat heldu den ekainaren 4an, igandearekin. Abiatzeak Sara, Bera eta Azkaineko plazetatik finkatuak dira goizeko 9etan. Eguerdiguruan aldiz, bazkari alaitua egingen da kasakoan (bakotzak bere jaketako eraman behar du).

Presoen gaiarekin segitzea, aste berean, bainan ortziralearekin, usaiako elgarretaratzea egingen da plazan, arratsaldeko 7etarik goiti.

Sarako Itzulia

Bi urtetik behin Axuria Elkartek antolatzen duen Sarako Itzulia Mendekoste egunean iraganen da. Izen ematea goizeko 6ak eta erdietatik goiti egiten ahalko da eta abiadak 7ak eta 8ak artean izanen dira plazan. Ibilaldian parte hartzeko sar-tze dretxoak 30 liberetan edo 750 pezetan finkatua da. Ibilbidea usaiakoa izanen da, baina aurretik mendizaleek Atxu-

ria beharko dute upatu, bertze urteetan bakarrik nahi edo ahal zutenek egiten baitzuten.

1989an egin zen lehen aldikotz; 300 lagunek egin zuten gure herriaren itzulia mendiz mendi. Orain dela bi urte seiehunetik goiti izan ziren. Egun osoan, berrogeita hamar presonek laguntzen dute antolaketan, bai denborak hartzen baita janari eta edari banatzen ere. Antolatzaileek Sara beti astian erran zaharrari atxikimendua dute, kontrol tokitan gutienezko denborak errespetatu arazi nahi baitituzte. Goizegi ailegatu direnak zain egon beharko dute, ibilaldia izatea nahi baita eta ez lasterkaldia. Plazan, eguerditatik goiti bai jaketako eta edateko manerak eskainiko da. Bertze urteetan bezala, egun osoan kaskoz kasko «sano-noki» ibili direnak «pau-satzeko» astia hartuko dute dudarik gabe!

Joko Berri txapelketa

Esku huskako Sarako Joko Berri txapel-



Esku huskako Sarako Joko Berri txapelketako lehen mailako finalean izan zirenak. Arotzarena, Arotzarene, Lacroix, St. Jean pilotariak eta Daniel Mariluz eta Sorrondo antolatzaile eta laguntzaileak.

ketak gaitzeko arrakasta bildu du, ehun pilotari lehiatu baitira joan den urtarrilaren 15etik apirilaren 29rat. Hauek dira finaleko emaitzak: laugarren mailan Ospital (Hazparne) eta Lamothe (Sara) nagusi zaizkiote Sarako Iratzoki eta Pateneri, 40 eta 30. Hirugarren mailan Camouk (Urruñia) eta Sorrondok (Sara) Ziburuko Ormazabalena eta Urruñako Arrietaren kontra irabazi dute, 40 eta 25. Bigarren mailan, berriz, Azkaindar bat eta Hazpandar bat izan dira nagusi, Etxeberri eta Ondartzek Sarako Elizalde eta Olazagazi menderatu baitituzte, 40 eta 35. Azkenik, lehen mailan herriko Arotzarenak eta Senpereko Arotzarenak ezin izan dute deus egin Senpereko Lacroix eta Haltsuko St Jeanen kontra. Izerdi ainitz bota ondok, ederki merexitako

afaria antolatua izan da iragan apirilaren 29an. Han bildu ehun lagunek izan dute horrela indar berritzeko parada.

Ihiztari Elkartearen biltzarra

Sarako Ihiztariak elkartek maiatzaren 7an burutu zuen bere urteroko biltzar nagusia. Erran behar da jende gutti etorri zela, 180 bazkidetatik 30 bakarra agertu baitziren. Orain arte bulegoan 11 presuna baldin baziren, hemendik goiti 13 izanen dire (beti nonbre ba-koitia). Etienne Ixuri-behere eta J. Philippe Amorena dira berriak (xantza on).

Erabaki garrantzitsu

bat hartu zuten biltzarrean. Orain arte basurde ihizia agorrilaren 25ean hasten bazen, aurretik buruilaren bigarren igandera gibelatu dute. Honen zergatia sa-soin horretan mendian jende aunitz ibiltzen dela da.

Ihizi konduekin segituz, erranen dugu Gobernuaren lege proiektua berriaren kontra Bordelen egindako manifestaldira Ipar Euskal Herriatik joandako sei autobusetan 13 saratar joan zirela, denetara 10.000 lagun inguru bildu ziren. Orain Senatuan pasa behar den legea onartzen bada asteazkenetan ez da ihizatzen ahalko.



**SAIOA
ILEAPAINDEGI
MISTOA
IBARDINen**

Benta Biok-en,
Benta Mirentxuren
ondoan

© 0034948630424

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artrita, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

MAGNETOTERAPIA NATUROPATIA

San Marcial, 7-4 IRUN

ONDORIOETATIK INDARTZEKO

- Diabetia
- Asma
- Larru azaleko alergia
- Buruko mina
- Zizareak
- Oinen izerdia
- Prostata, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldeaz 2-7etara. Ordua eskatu

EZKONTZAK

Antonio Maria Noble Mindegia eta **Maria Teresa Flores Vidal**, Ezkurra eta Iruñekoa, maiatzaren 6an.

Luis Urreaga Burgete eta **Jaione Escudero Irigoien**, Iruña eta Gartaingoa, maiatzaren 12an.

Pentxu Azkoaga Barberena eta **Mikel Apezetxea Azpiroz**, Orozko eta Berastegikoa, Zugarramurdin, maiatzaren 6an.

Philippe Ordoki eta **Laurence Molerés**, Sara eta Azkaingoa, maiatzaren 13an.

JAIOTZAK

Sarai Goikoetxea Goikoetxea, Leitzakoa, maiatzaren 5ean.

Koldo Hernandorena Alkaraz, Leitzakoa, maiatzaren 14an.

Miren Ballarena Oteiza, Iruritaikoa, maiatzaren 5ean.

Uxue Ballarena Oteiza, Iruritaikoa, maiatzaren 5ean.

Cristina Aranbel Fernandez, Elizondokoa, apirilaren 28an.

Mikel Irazoki Zelaieta, Berakoa, maiatzaren 14an.

Sebastien Bertizberea, Sarakoa, maiatzaren 11n.

Aimar Telletxea Iraola, Igantzikoa, maiatzaren 15ean.

Ainara Begino Mendiburu, Igantzikoa, maiatzaren 17an.

HERIOTZAK

Juliana Zozaia Errotaberea, Elizondon, maiatzaren 10ean, 90 urte.

Pedro Noain Bibiot, Elizondon, maiatzaren 14an, 84 urte.

Maria del Carmen Zelaieta Iñarra, Elizondon, maiatzaren 18an, 79 urte.

Milagros Erro Hortola, Elizondon, maiatzaren 20an, 89 urte.

Carmen Iturria Lasaga, Berakoa, maiatzaren 14an, 75 urte.

Jesus Telletxea Zelaieta, Berakoa, maiatzaren 14an, 88 urte.

Jean Henri Hertz, Sarakoa, maiatzaren 8an, 82 urte.

Gérard Errandonea, Sarakoa, maiatzaren 8an, 67 urte.

Federico Odrizola Bereau, Doneztebekoa, maiatzaren 18an, 73 urte.

Bautista Ibarra Larretxea, Sunbillakoa, maiatzaren 9an, 85 urte.

Carmen Zelaieta Iñarga, Igantzikoa, maiatzaren 18an, 82 urte.

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNIDADEAK

beretzat ariko den euskara teknikari lanpostu bat, aldi baterako, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia egin du

BALDINTZAK:

- EGA titulua edo baliokideren bat izatea
- Unibertsitateko titulazioa izatea, erdi edo goi mailakoa
- Ibilgailuak gidatzeko baimena izatea, baita ibilgailua ere

OHARRAK:

- Eskaerak Arantzako Herriko Etxean aurkeztuko dira, 2000ko ekainaren 14ko arratsaldeko 3ak baino lehen.
- Frogak 2000ko ekainaren 28an hasiko dira, goizeko 9etan. Egun horretan idatzizko frogak egingen dira. Ahozko frogak 2000ko ekainaren 30ean goizeko 9etan hasiko dira.
- Lanpostua eskuratzen duen izangaia uztailaren 3an lanean hasiko da.
- Deialdiaren oinarriak ikusgai egonen dira Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi nahiz Lesakako Herriko Etxeetan, baita Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Doneztebeko bulegoan ere.
- Deialdiari buruzko informazio gehiago telefono honetan: 948 634125.

Arantzan, 2000ko maiatzaren 24an.

*Bortziritako Euskara Mankomunidadeko lehendakaria,
Jose Ramon AMOROS OSKOZ*



BERAko UDALA AYUNTAMIENTO DE BERA

BERDEGUNE ETA LORATEGIAK ZAINTEKO ETA ZUHAITZAK KIMATZEKO LANAK KONTRATATZEA

- **Kontratuaren xedea:** Berdegune eta lorategiak zaintzeko eta zuhaitzak kimatzeko lanak kontratatzea.
- **Esleipen modua:** Prentsan iragarritako prozedura negoziatua.
- **Kontrata aurrekontua:** 3.800.000 Pta. / 22.838,45 euro (BEZ barne)
- **Proposamenak aurkeztea:** Iragarki hau egunkarietan argitaratu eta ondoko 15. egun naturala arte. Orduak: 9:00etatik 13:00etara. Azken eguna larunbata suertatzen bada, astelehenaraino luzatuko da.
- **Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea:** Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta ondoko 5. egunean. Egun hau larunbata suertatzen bada, astelehenaraino luzatuko da.

Baldintza tekniko eta klausula administratibo plegua eta gaineko baldintzak interesatuen eskura Udala bulegoetan izanen dira.

Bera, 2000.05.18
ALKATEA, J. Goia Etxeberria

ERTZ JAIALDIA

Musika esperimentalaren biltoki

Ekainaren 9 eta 10erako hainbat kontzertu antolatu dituzte Berako musika taldeek

Ertz jaialdian ikusi-aditu ahal izanen diren 8 emanaldiek ez dute zerikusirik elkarren artean, musika ulertzeko modu desberdina baitute denek ere. Bada, ordea, talde guziek izan baduten ezaugarri bat: euren estiloaren barrenean bide berriak, ideia berriak, eta azken finean musika egiteko modu berriak proposatzen dituzte denek.

TALDEAK BANAN BANAN

Alejandra & Underwood bikoteak musika elektronikoa egiten du, bainan instrumentuak erabili beharrean egunero bizitzatik ebatsitako soinua nahasiz osatzen dituzte euren kantutak. Zulo Beltza, berriz, argazki estenopeka proiektu batetik sortutako bideo emanaldia da, Berako irudiak eta musika inprobisatua naha-



siko dituen.

Francisco Lopez madrildarrak hainbat baso eta oihanetako soinuak grabatu eta ambiente bereziak sortzeko erabiltzen ditu. Berekin Amy Denio estatubatuarra etorriko da, hainbat instrumentu jo eta 8 eskala kantatzeko gai den emakumea. Katalunia-

tik Evol (argazkikoak) eta Un Caddie Rerversé Dans L'Herbe bakarlarria etorriko dira, musika elektronikoa jorratzen dutenak, eta azkenik hemengo talde batekin itxiko da jaialdia: Voodoo Muzak Lapurdi eta Berako musikariak osatzen dute.

Emanaldien artean

disco eta bertze materialak eskuratzen ahalko dira beheko solairuan. Internet-en ibiltzeko ordenagailu zenbait ere jarriko dituzte. Jaialdiaren aitzindari gisa, ortziral honetan (ekainak 2) kultura eta musika mestizajea lantzen duen II Gran Teatro Amaro taldea ariko da Pui ostatuan.

EGITARAUA

Ekainak 9, ortzirala
21etan • Kultur Etxean




Sandra & Underwood
Londonen bizi den New Yorkeko bikotea.



Zulo Beltza
Bideo emanaldia eta zuzeneko musika.

Francisco Lopez
Musika aditu eta ikusteko modu berri bat.

Amy Denio
Seattleko emakume multinstrumentista. Saxo, akordeoia, baxua...



Ekainak 10, larunbata
arratsaldetik • Kultur Etxean



Eardrum
Londonetik, musika afrikarra, inprobisazioa eta esperimentazio nahasketa.

Evol
Abstrakzio digitala.

Un caddie reversé dans l'herbe
Turntablist berezia.

Voodoo Muzak
Bi bateria, bi baxu, eta elektronika.



Xabi ERKIZIA Antolatzazilea

«Hemen ez dago ia musika esperimentalaren kulturarik»

Ze helbururekin antolatu duzue Ertz Jaialdia?

Zoritxarrez, hemen, euskal herrian ia ez dago

musika esperimentalaren kulturarik, jendeak irratian edo telebistan aditzen dionari segitzen dio, hor barna dauden eskaintza berriei erreparatu gabe. Guk bertze musika hoiak erakuslehioan paratu nahi ditugu Ertzekin.


Ez da hemengo talde aunitzirik ikusten karreleian. Zergatik?

Hala da, baina erran beharra dago arriskua mai-

te duten musikariak badirela hemen ere. Dena den, aukera hau eskuartearen izanta kanpora begira jarri gara, eskeintza aberastu eta kanpoan egiten dena erakusteko asmoz.

Talde bakar bat ere ezagutzen ez duen entzuleari zer erranen zenioke?

Kuriositateari tarte ttiki bat egiteko eskatuko nieke. Kontzertu batzuk nahiko zailak suertatuko badira ere, talde edo artista guzietan badute gehigarri bisual, eszeniko eta, noski, musikalen bat, eta hori beti ere berexia suertatzen da. Gauza aski desberdinak ikusi eta adituko direla segurta dezakegu bederen.



Sarako 8. Mendi Itzulia ekainaren 11n egingen da

- 45 kilometro egingen dituzte partehartzaileek
- Hamar oren eta erdi inguru beharko dira

Igandean zortzi, ekainaren 11n egingen da Saran Axuria elkarteak zortzigarren aldiz antolatutako mendi itzulia. Ibilbidea ohikoa izanen da, 45 kilometro ingurukoa eta Saratik abiatuz, Suhalmendi, Santinazio, Iturriadarreta,

Larrun, Lizuniaga, Iban-teli, Lizarrieta, Saiberri, Urioko erreka, Zugarramurdi, Atxuria eta Gai-nekomentan barna pasatuko da, berriz ere Sarako plazara itzuli aitzin. Ibilbidea, banazbertze hamar oren terditan egingen dela uste du-

te antolatzaileek (gehie-nez 12 oren eta gutie-nez 9 oren). Izen emate-akegunean berean, abia-tu aitzin 6ak 30etarik goiti egingen dira eta sar-tze dretxoa 30 liberakoa izanen da (750 pezeta). Abiatzeak goizeko 7ak eta 8ak artean egingen di-



ra eta Axuria elkarte-koek errandakoaren ara-bera, «abiatzeko teno-reak baitezpada erres-petatu beharko dira, egunaren antolamen-duengatik». Xehetasun gehiago nahi izanez ge-ro, Axuria elkartera dei-tu: 05 59 54 25 26. ●

Olasagasti eta Mindegia aurrez aurre Azpeitian

- Igandean jokatu da Urrezko Aizkoraren finala
- Donato Larretxea laugarrena izan da

Igande honetan, ekai-nak 4, eguerdiko 12 eta-tik aitzinera jokatu da Azpeitian Urrezko Aiz-kora lehiaketaren fina-la. Igeldoko Joxe Mari Olasagasti eta Ezkurra-ko Mikel Mindegia izan-nen dira aurrez aurre. Norgehiagokak ez du faborito argirik. Joan den urteko Euskal Herriko txapelketaren finalean neurtu zituzten indarrak azken aldiz bi aizkolari haundi hauek eta orduan, Mindegiak ederki estutu zuen arren,

gipuzkoarra gailendu zen. Oraingoan ikusi egin beharko da zer gertatzen den, izan ere, Mikel Mindegia sasoi betean ailegatu da fina-lera, Arrospide eta Peñagarikano kanpora-tu ondotik. Olasagastik, berriz, uste baino lan guttiago egin behar izan zuen finalera ailegatzeko. Igeldokoak eginda-ko saio bakarrean, fina-lerdian, Donato Larretxea aranztarrak lana utzi egin zuen eta nahiko lasai aritu zen.

Dirua Olasagastiren alde aterako da segurue-nik, baina Mindegiak egun ona baldin badu, edozein estutzeko mo-duko aizkolaria da. Hamabi enbor moztu beharko dituzte, lau 45 ontzakoak, bi kanaer-diko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko. ●

Azkeneko Euskal Herriko txapelketan Olasagasti nagusitu zitzaion Mindegiari, baina iganderako ez dago faborito argirik.



BOITE

pronon

- ❖ **Gure Txokoako neskak finalean**
Gipuzkoako Ema-kumeen Ligan aritu den Berako Gure Txokoako taldeak finala jokatu du as-teburuan Mutriku-ren kontra. Hau idaz-terakoan zelaia eta eguna zehaztu gabe zeuden. Finalerdian Elgoibar taldearen aurka nagusitu ziren.
- ❖ **Urtxintxaren garaipena**
Urtxintxa-Aptiva txirindulari taldeko kadetetan ari den Jose Mari Sestorain leitzarrak irabazi zuen maiatzaren 20-an Altsasun eginda-ko XIV. Burunda Sa-ria. Sprintean nugu-situ zen Sestorain eta Iker Aizagirre talde-kidea bosgarren izan zen. Urtxintxak ira-bazi zuen taldeka.

Nafarroako Txirrindulari Itzuliak eskualdea bisitatuko du asteburuan

- Ortziraleko etapa Berako Ibardingo gainean akautuko da
- Patxi Vila eta Jon Bru beratarrak, faboritoen artean

Maiatzaren 30ean Zangotzan hasi eta ekainaren 4an Iruñean akautuko den Nafarroako 39. Txirrindulari Itzuliak kilometro aunitz egingen ditu eskualdean barna. Lehendabiziko hiru etapak Erribera inguruan egingen baditu ere, laugarrena, ortziralekoa, Berako Ibardingo gainean akautuko da. Etapa hori Lizarran hasiko da eta 151 kilometroren ondotik lehen mailako malda horretan helmugaratuko da. Eskualdean Uitziko gaintik sartuko da. 91. kilometroan sprint berezia izanen da Leitzan. Hortik Usategietra joanen dira (2. maila) eta Ezkurran barna Doneztebera joko dute. Zuzenean Berara joanen dira txirrindulariak, Ibardingo maldari ekiteko.

Larunbateko etapako lehendabiziko 50 kilometroak ere eskualdean egingen ditu trope-lak. Beratik Lesakara sartuko dira eta Igantzirako bidean, Piedadeko gaina izanen dute etapako lehen mendia (3. maila). Doneztebetik Zubieta aldera hartuko da eta Lotzabian igaro ondotik, Saldiasoko gaina (1. maila) izanen dute 50. kilometroan. Saldiasetik Ultzama aldera aterako dira txirrindulariak. Etapa Tafallan akautuko da 160 kilometroren ondotik.

Inguruko txirrindulariak ere ikusi ahal izanen dira etapa hauetan, Caja Ruraleko Patxi Vila beratarra eta Unai Barazabal azpilkuetarra edo Banestoko Jon Bru beratarra gogor saiaturiko baitira.



Patxi Vila beratarra hirugarren izan zen iazko Nafarroako Itzulian. Lasterketako lehen nafarra ere bera izan zen.

Argazkia: Asier



- ❖ **Mikel Saralegik marka berria**
Hirugarrenean bai. Mikel Saralegik 328 kiloko harria bizkar gainean berdintzea lortu zuen maiatzaren 13an Olatzen, munduko marka berri bat ezarritz. 19 segundu behar izan zituen harria altxatzeko eta joan den urteko apirilaren 9tik zuen marka kilo batean hobetu zuen.
- ❖ **Patxi Pikabea garaile Berako III. Herri Lasterketan**
Patxi Pikabea beratarrak irabazi zuen maiatzaren 20an egindako Berako III. Herri Lasterketa. Patxi Ramuntxo Lamothé utzi zuen gibelean azken sprintean. Bautista Tellexea beratarra izan zen hirugarren eta beteranorik onena. Adin guzietako 150 korrikalarik hartu zuen parte proban.

Jon Bru txirrindulari beratarra Nafarroako txapeldun afizionatuen elite mailan

Atarrabian egindako proban seigarren postuan sartu zen

Maiatzaren 14an Atarrabian egindako proban elite mailako Nafarroako txapeldun suertatu zen Jon Bru, Banesto taldean ari den txirrindulari beratarra. Bru seigarren postuan sartu zen Almarceguiren omenez Atarrabiako Udalak antolatutako 5. lasterketan, tropelari denbora emanaz. Aitzinetik, lau txirrindulari ihes eginda ailegatu ziren, baina bakar bat ere

ez zen nafarra. Beratarraren tropelean ere ez zegoen elite mailako bertze nafarrik, beraz, nahiko erraz eraman zuen txapelketa. «*Personaliki hagitz kontent nago, nahiz eta taldearentzat lasterketa irabaztea zen garrantzitsuena*» zioen Bru. 23 urtez behetik txapelketa Teguiko Joseba Errorentzat izan zen. 108 txirrindularik hartu zuten parte. ●



Jon Bru eta Joseba Erro, elite eta sub-23 mailako txapeldunak.

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

URDAZUBI

► **Maiatzaren 30tik ekainaren 3ra**
Egitaraua gehigarrian.

IRURITA

► **Maiatzaren 30tik ekainaren 3ra**
Egitaraua gehigarrian.

BERROETA

► **Maiatzaren 9tik 12ra**
Egitaraua Baztango berrietan.

ERAKUSKETAK

BERA

► **Maiatzaren 22tik ekainaren 8ra**
"Terra" argazki erakusketa. Brasilgo Lurrik Gabeko Nekazarien Mugimenduari buruzko erakusketa. Kultur Etxean, 18etatik 20etara. Antolatzaileak: SODEPAZ eta IPES.

KONTZERTUAK

LESAKA

► **Ekainaren 3an**
Solidarioekin elkartasun kontzertua. Barricada, SA eta Doctor Deseo. Kristoenea futbol zelaietan.

BERA

► **Ekainaren 2an**
Il Gran Teatro Amaro, Pui ostatuan.
► **Ekainaren 4an**
Ñako Goñi, Pui ostatuan.
► **Ekainaren 9 eta 10ean**
Ertz jaialdia. Kultur Etxean.

OIARTZUN

► **Ekainaren 2an**
Hechos Contra el Decoro. 11etan.
► **Ekainaren 4an**
Mártires del Compás. 8etan. Paga aretoan.

TELEBISTAKO TXOKOA



Ekainak, 5 - Berriak

Bezperan egitekoa den Etxalarko 7. gasna ferian ez du hutsik eginen TTIPI-TTAPA TELEBISTAK. Azken urteotan Altxata elkartearen eskutik etorri den ekitaldi honen protagonista nagusiak ere gurekin izanen dira egunak emanen dituen guziak kontatzeko.

Ekainak, 8 - Saio berezia

Joan den urteko uztailean Gasherbrumeko gaina ukitu zuten Bortzirietako 5 gazteek espedizio hartan grabatutako irudiak aurkeztuko dituzte gure telebistan. Orduan bizitutako abentura paregabearen ondotik, Agerra Mendi Taldeko mendizale hauek euren hurrengo proiektuaren berri emanen digute halaber. Mendia eta abentura maite duzuenek ezin duzue galdu programa honek eskainiko diren irudi eta kontakizunak.



Ekainak, 12 Ttipi-ttapa berriak

Ekainaren 9 eta 10eko asteburuan Beran eginen den Ertz musika esperimentalaren jaialdia hurbiletik jarraitzeko modua eskainiko dugu astelehenean bertan. Euskal Herrian lehenbiziko aldiz ospatuko da gisa honetako musika ekitaldi bat, Estatu Batuak, Britainia Handia, Katalunia eta hemengo artistak bilduz. Dudarik gabe, inguru honetan eta hemendik kanpo ere zer erran franko emanen du Berako musika taldeek antolatu duten ekimen honek, eta gure telebista ere horren lekuko zuzena izanen da.



BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 5.200 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 189 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 100-105 pta./kiloa, bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta./kg. Kanal
Extra550
1.koa520
2.koa500
- **Urruxak:** Pta./kg. Kanal
Extra570
1.koa540
2.koa520
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.
- **Aretze tikiak**
(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruzak 12.000 eta idixkoak 30.000 Pta.
Mestizoak: urruzak 30.000 eta idixkoak 45.000 Pta.
- **Behi zaharrak:**
Behi nabar gizona: 350 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

DISKAK



«Prest»

JOUSILOULI

GOR DISKAK

Talde gipuzkoar hau 1995ean sortu zuten Lezo eta Pasaiako gazte batzuk. 5 urte hauetan 70 kontzertutik goiti eman ditu hainbat herritan, hoinen tartean Beran (2 aldiz) eta Etxalarran, eta zuzenean ikusi dituztenek badakite taulagainean ikusgarriak direla (batzutan mozorroturik ateratzen dira). Orain Gor disketeak euren musika gehiago hedatzeko aukera eman die, eta ez dute al-

ferrik galdu nahi izan. Beren musika metal, funk eta hardcorearen inguruan koka dezakegu, baina hip-hopetik ere aunitz edaten dute. Matxet kantariaren abesteko modua, adibidez, rapetik hurbilago dago bertze edozein estilotik baino. Euren kuttunen artean Biohazard, Sepultura, Wu-tang-clan, House of Pain edo Stevie Wonder bezain talde desberdinak aipatzen dituzte.

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin).
1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapak** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

ADOS

- BERA. Bi pisu eta bi apartamentu salgai. Giltzak maiatzean emanen dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

BULDAIN

Leitzako eskola berriaren ondoan 21 m²ko bajera salgai. EZKURRA. Baserria salgai, 100.000 m²ko terrena. 55 milioi. ☎ 649 476 615 • 948 510 167 goizetan deitu

GOIZUETA. Pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldaria eta komuna. Garaje handia. ☎ 948 514 213.

LESAKA. Bittiria karrikan pisua salgai. Sukaldea, egongela, 2 bainugela, 4 logela, terraza. ☎ 948 637 246 edo 608 498 564.

ETXEBIZITZAK

104 ERRENTAN HARTU

LEITZA. Pisua hartu nahi nuke errentan, abuztutik aurrera. ☎ 948 161 894.

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

ETXEBIZITZAK

105 ETXE KONPARTITUAK

DONOSTIA. Erdialdean pisu handia dut, eta norbaitek konpartitu nahiko nuke urte osoan. ☎ 670 087 427.

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

BERA. Agerra auzoan 117 m²ko bajera errentan emateko. Sara karrikan. ☎ 948 630 785 (gauz).

BERA. Legia karrikan 52 m²ko lokala errentan emateko. Entrepilanta, komuna, ura eta argiarekin. ☎ 686 99 00 87.

Arantzako Gazte Asanbladak txozna ematen du errentan. ☎ 948 6634 016.

LURRAK/ORUBEAK

112 SALDU

ADOS

IRURITA.

- Lur eremu eraikigarria salgai.

☎ 948 451 841
607 978 656

BERA. Lur-eremua salgai, etxea egiteko aukerarekin. ☎ 629 755 476.

LANA

301 ESKARIAK

Neska gazte batek lan egiten luke udan umeak zaintzen etabar... ☎ 948 615 035 (Leire).

Emakume bat eskaintzen da goizetan hiru ordu lan egiteko. ☎ 948 630 238.

LANA

302 ESKAINTZAK

☎ 948 13 11 36

LODITASUNA?

96 pertsona behar ditugu pisu kontrolaren programa berri bat frogatzeko. Belarren bidez eginen da.

Bortzirietako jatetxe batean **zerbitzaria** behar dugu. Esperientziarekin, euskara eta frantsesa dakizkie-na. Kontratu egiteko aukera. ☎ 948 635 290.

Aste bukaeratarako **zerbitzariak** behar dira Pagoa garagardotegian. Esperientzia badute hobe. Beharrezkoa euskaraz jakitea. ☎ 943 461 139 edo 619 421 153 (Joxe Angel).

Pertsona bat behar da Beran udako euskara ikastaroetan **sukaldari** lanetan aritzeko. ☎ 948 637 796 (Noemi).

Garraio merkantzien **titulua** errentan ematen da. ☎ 948 637 564 (gaueko 8,30etatik aitzinera).

Neska bat behar dugu Donostian interna gisa lan egiteko. ☎ 943 214 004.

ZERBITZUAK

205 ZURGINAK

ARANTZA ZYRGINDEGIA

Jose Miquel Errandonea

Klase guztietako zurgin lanak

Osiña auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Peugeot 106 Midnight salgai. 5 urte, 65.000 km. ☎ 948 630 302.

MOTORRA

502 TAILERRAK

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Astra Caravan TD, Vitara D, 205 GT, Corsa D.

SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

BOAN TAILERRA

CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 948 63 06 23 • BERA

GANIX Tailerrak

Iturilandeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

Foxterrier zakurkumeak salgai. ☎ 948 453 265 (gauean deitu).

Behi pinta salgai, ernari dagoena. ☎ 948 637 012.

Lau urteko **behia** salgai bere txekorrarekin. Prima kobratzeko deretxoarekin. ☎ 948 510 348.

Bobtail arrazako **xakurkumeak** salgai, desparasitatuak eta pedigriarekin. ☎ 948 514 341.

Aharia salgai. ☎ 948 450 160 (Luis).



URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeako, bidali sobrea zure helbidearekin.

OHARRA:

Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Argazkia itzultzea nahi baduzue sobre bat eta helbidea bidali.



Martin Etxegarai lesakarrak maiatzaren 24an bi urte beteko ditu. Aunitz urtez Goretti, Fernando eta gurasoen partetik.



Enaitz Anso Etxandik maiatzaren 27an bete ditu 2 urte. Aunitz urtez etxekoan partetik eta bereziki aita eta amaren partetik.



Garbiñe Pikabea beratarrek hilaren 30ean urteak beteko ditu. Zorionak eta kasu kostaldeko surflariekin.



Gaizka Gallardon Altugarai 12 urte beteko ditu maiatzaren 24an. Aunitz urtez Ibai, atta eta amaren partetik.



Adur Iantzi igantziarrari zorionak maiatzaren 31n 6 urte bete dituelako. Zure familiak maite zaitu, pituiti.



Aintzane Pikabea alkaia garra maiatzaren 20an bete ditu 7 urte. Zorionak familiaren partetik.



Zorionak **Joanes!** maiatzaren 19an urtebete egingo duzulako. Andoaingo amona eta izebak.



Unai Gurrutxaga Errandonea lesakarrak maiatzaren 29an 8 urte beteko ditu. Aunitz urtez familiaren partetik.



Olatz Mitxelena Sagasti-beltza ekainaren 4ean beteko du urte bat. Zorionak Lesakako amatxi eta osaba-izeben partetik.



Elixabet Elizondo arantzarrak maiatzaren bete ditu 3 urte. Zorionak Arantzako familiaren partetik.




Juana Ganboa Jorajuria beratarrek 75 urte bete ditu maiatzaren 24an. Zorionak eta muxu bat familia guziaren partetik.




Jaione Etxabe Sanz beratarrek 5 urte bete ditu maiatzaren 24an. Zorionak atta, ama, Jose Mari eta Joneren partetik. Muxu bat.



Lola Etxabe Garcia elizondarrak 67 urte bete ditu maiatzaren 26an. Zorionak Jose Mari eta Jaioneren partetik. Muxu bat.



Xabier Olazar elgorriarrak 5 urte beteko ditu maiatzaren 26an. Zorionak eta muxu handi bat aita, ama, Olaia eta Sararen partetik.



Mikel eta Julen Oteiza Almandoz arantzarrak 8 eta 3 urte bete dituzte ekainaren 21 eta maiatzaren 31ean. Zorionak familia guziaren partetik.



Olaia San Miguel Mitxelena doneztebarrak 4 urte beteko ditu maiatzaren 30ean. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Asier Sein igantziarrak 6 urte beteko ditu maiatzaren 31n. Zorionak familiaren partetik.



Oihana San Miguel doneztebarrak urteak bete ditu maiatzaren 18an. Zorionak eta musu asko familia guziaren partetik.



Ainhoa Ordoiki lesakarrak maiatzaren 17an bete ditu 17 urte. Segi beti bezain alai eta bestazale. Ea noiz ateratzen duzun txanpaina.



Jazone eta Izei beratarrek 17 eta 1 urte bete dituzte maiatzaren 26 eta 29an. Zorionak gure «kurrela» eta gure «tsalseroari» guzion partetik.



Jontxu Aldabe doneztebarrak 3 urte bete ditu maiatzaren 21ean. Gure pottolori bi muxu eta besarkada handi bat. Aina- eta Aitziber.



Peio A. Telletxea Iribarren doneztebarrak maiatzaren 26an urtea bete du. Zorionak eta musu handi bat zure familiaren partetik.



Naiara Martin Goiak 3 urte beteko ditu ekainaren 17an. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Ainhoa Etxeberria Altugarai urteak bete ditu maiatzaren 28an. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



Markel Zapiain Lasa beratarrek 2 urte beteko ditu ekainaren 13an. Zorionak! Aupa Txikito de Bera!



Ainhoa Portu lesakarrak 11 urte beteko ditu ekainaren 11n. Zorionak familiaren partetik.



Gorka Portu lesakarrak 8 urte beteko ditu ekainaren 1ean. Zorionak familiaren partetik.



Amaia Goñi Gelbenzuk ekainaren 9an 4 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



Mikel eta Izaskunek 9 urte beteko dituzte ekainaren 9an. Zorionak eta musu potol-potolo bat ama eta attaren partetik. Aurrera pottokok!



Xabier Andueza sunbildarrak 16 urte bete ditu maiatzaren 25ean. Zorionak zure eskutitz lagunaren eta bere kuadrilaren partetik.



Imanol Oiarzabal Dosantos ekainaren 22an 7 urte beteko ditu. Zorionak guraso eta arrebarren partetik. Muxu handi bat.



Ibai Retegi Zamorano igantziarrak ekainaren 7an 10 urte beteko ditu. Zorionak Arkaitz, atta eta amaren partetik.



Arkaitz Retegi Zamorano igantziarrak 7 urte beteko ditu uztailaren 13an. Zorionak Ibai, atta eta amaren partetik.



Joseba Garmendia beratarrek ekainaren 17an beteko ditu 10 urte. Aunitz urtez eta besarkada bat Aitor, aita eta amaren partetik.



Aitor Garmendia beratarrek ekainaren 11n beteko ditu 7 urte. Aunitz urtez eta besarkada bat Joseba, aita eta amaren partetik.



Iphan Iparragirre etxalartarrak ekainaren 3an 8 urte beteko ditu. Zorionak bere familia guziaren partetik. 8 muxu.



Maialen Kamino Elizagoien elizondarrak ekainaren 2an beteko ditu 7 urte. Zorionak familiaren partetik.

DENETARIK

701 GALDU-AURKITUAK

Urrozko presan Minolta 300 argazki makina galdu dut. ☎ 943 216 469 (Nerea).

Txakur txuri-beltza galdu zaigu Zubieta aldean. Iletsa, lepoko gorria du. Xiba du izena. ☎ 943 279 814.

Berako Miljar ostatuaren ondoan **2erloju** galdu ditut. Bat TB kateak aldatzeko horietakoa. ☎ 948 630 532.

Setter ingeles emea galdu nuen maiatzaren 21ean Irurita eta Baldorba artean. Txuria da, mantxa beltze-kin, eta Jela du izena. ☎ 609 960 836.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Esne-tankea salgai, 320 litrokoa. ☎ 948 610 623.

Sukalde industriala eta **sauna** salgai. Prezio onean. ☎ 948 452 126.

Bigarren eskuko **segadora** salgai, oso ongi dago. ☎ 948 510 348.

Lasto xehetzeko makina erosiko nuke. ☎ 948 640 807 (Manuel Morras).

Garajeko **bi ate** salgai (3,20x2,70 eta 2,45x1,90). Egoera onean eta merke. ☎ 948 630 945.

HARREMANAK

801 AGURRAK

Xaretako **Inaxio** eta Baztango **Fumantxuri**: munduko eroenak zarete, ia noiz mozkortzen garen denok batera, gauzak ahaztu gabe! Ez haserretu Fumantxu! Kixu, Zarra, Peltza eta Hippyren partetik.




ALBAITARITZA KLINIKA

- Medikuntza orokorra
- Txertaketak
- Kirurgia
- Analisak
- Garbiketa
- Ilonparadegia
- Pentsuak eta osagarriak



Telefonuak:

948 63 13 62

608 77 44 01

Legio, 21

31780 BERA



ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo ugariko mobleak

Larunbat goiz eta arratsaldean irekia

Arraiz enpotratuen
erakusketa berria
Bittirian

ERAKUSKETA Bittirian, 31 eta Plaza

Zabala 28

SALTOKIA Plaza Zabala 11 - 1.º Solairu

948 637 700

LESACA



LOGELAK, EGONGELAK, TRESILLOAK,
KUTXAK, BESAUJKIAK...



MUEBLES & METS

Sarrera BERAtik da
Alkaiagako industrialdean
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4
31789 LESAKA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443

4.000 m²ko
erakusketa
mobleak ikusteko
Larunbat arratsaldetan irekia

